

on
dagizuela!



barrenet 12. ikastunitatea
2. maila
irakaslearena

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak.....	3
2. Ikastunitatearen ibilbidea.....	5
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak.....	7

2. ATAZAK

A. ataza: Sabelaren erritmoan.....	9
B. ataza: Goza gaitezen jaiaz.....	15
C. ataza: Geureari eutsita.....	21

3. MATERIAL OSAGARRIAK

A. ataza: Gure elkarteak.....	28
B. ataza: Zain dezagun jana.....	31
C. ataza: Testuaren sukaldean.....	36

4. ERANSKINAK

I. eranskina: Ikasleen autoebaluazio-orria.....	38
II. eranskina: Txikitako meriendak.....	39
III. eranskina: Testigantzak.....	42
IV. eranskina: Gernikako azokari buruzko bi kronika.....	44
V. eranskina: Euskal Herriko Gidaren sarrera.....	47
VI. eranskina: Karlos Argiñanori egindako bi elkarrizketa.....	48
VII. eranskina: Denok sukaldari.....	51
VIII. eranskina: Testuaren sukaldean.....	52
IX. eranskina: Eta errezeta txiki bat.....	53

BIDEO-PASARTEAK				
A ataza	B ataza	C ataza	M.O.: A ataza	M.O.: B ataza
1b-p 02.04.20	2b-p 02.09.51	3b-p 02.13.09 4b-p 02.16.26 5b-p 02.20.26	6b-p 02.24.30 7b-p 02.24.57 8b-p 02.26.02 9b-p 02.27.34 10b-p 02.31.16	11b-p 02.34.59 12b-p 02.41.14 13b-p 02.47.05

OHARRA: denbora horiek erreferentziakoak dira

1. Sarrera

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

➤ Helburuak

Ikastunitate hau Kurrikuluko bigarren mailaren amaiera aldera dauden ikasleentzat pentsatuta dago. Maila honetan, ikasleek **gutxieneko autonomia eskuratu behar dute, beren ingurune sozial hurbileko gertakari eta jokabideez hitz egiteko eta beren intereseko gaien inguruko testuak ulertzeko.**

Adibidez, lagunartean gai bat hartzen bada hizpide —gaur egun dugun bizi-erritmo eroaren gaia, esaterako—, ikasle hauek jada gai izan beharko lukete beren esperientzia edo besteena azaltzeko, iritziak eta arrazoiak emateko...

Bestalde, interes orokorreko irriti-programa bat edota gai baten inguruko prentsako gehigarri berezi bat ere arazorik gabe ulertu beharko ditu; izan ere, horrelako gaiak askotan hartzen ditugu hizpide lagunarteko solasaldietan.

Unitate honetan aurkituko dituzun jarduerak horixe bilatzen dute: ikasleari aukerak eta baliabideak eskaintzea, hizketaldi landuxeagoak ulertzeko eta sortzeko; beti ere, antzeko testuinguru eta hurbileko gaietan.

➤ Gaia

Honako hau da unitate honen gai nagusia: jan-edanaren gainean sortzen diren harreman-moldeak eta gizartean dauden jokabideak. Zergatik hori?

- o Batetik, askotan erabiltzen den gaia da: maiz hitz egiten dugu jan edo jango dugunaz, lagunei jateak gomendatzen dizkiegu, afarietara joaten gara lagunekin, komunikabideetan puri-purian dabil sukaldaritza, jan-kontuak kezka-iturri dira (segurtasuna, kalitatea, dietak...).
- Ikasleek aukera asko izango dituzte gai honi buruz jarduteko klasetik kanpo.**
- o Bestetik, gai honekin lotutako jokabide gehienak aisialdiari lotuta datoz. **Egoera horietan errazago arituko dira euskaraz maila honetako ikasleak** lanean edota testuinguru publikoetan baino.
- o Gainera, oro har, ez da gai korapilotsua edota eztabaida larrien eragile. Gai honetan norberaren esperientzia eta gustuek dute lehentasuna. Horrenbestez, ikasleek **patxadaz jardun ahal izango dute proposatzen dizkiegun jardueretan.** Hori garrantzitsua da, hizketaldi landuagoak egitera edota testu zailagoekin lan egitera bultzatu nahi baditugu.
- o Bestalde, gai honek helduleku eta adar asko ditu; ondorioz, **hizketaldi ezberdinak baliatzeko eta lantzeko aukera eskaintzen du.**

➤ Trebetasunak

MINTZAMENA: Unitate honetan jasotako proposamenek ikaslea **era ezberdinetako azalpen jarraituak** egitera bultzatuko dute. Azalpenak hainbat euskarriren gainean eraikiko dira: mapa kontzeptualak, eskemak...

- o Lehenbizi, **beren esperientziez** hitz egingo dute. Hasiera deskribapen "objektiboak" egingo dituzte; gero, azalpen "sentituagoak" egitera bultzatuko ditugu.
- o B atalean, **prentsan azaldutako erreportajeei buruz** jardungo dute. Batez ere, hainbat artikulu irakurri eta horien berri eman beharko dute.
- o Ondoren, **gai bat azaldu** beharko dute. Azalpen horietan —informazioa emateaz gain—, balorazioak, gomendioak eta abar txertatzera bultzatuko ditugu ikasleak.
- o Unitatearen azken aldera, ikasleei hainbat **jokabide sozialei buruzko iritziak** emateko eskatuko diegu. Maila honetako ikasleentzat erronka zaila da hau; horregatik, jarduerak diseinatzean, saiatu gara ikasleek euskarri eta baliabide egokiak izan ditzaten, iritzia lantzeko eta azalpena planifikatzeko.

ENTZUMENA: Unitate honetako euskarrietan hiztunek aldiro-aldiro azalpenak emango dituzte. Batzuetan, irrati edota telebistako programetan parte hartzen duten entzule arruntak izango dira hiztunak; beste batzuetan, berriz, programara gonbidatutako adituak.

- o Unitatearen hasieran ikasleek **bat-bateko azalpenak** zehatz ulertu beharko dituzte.
- o B eta C atazetan, **irratiko elkarrizketa eta solasetan** hainbat iritziak alderatu beharko dituzte.

IRAKURMENA: Unitate honetan, **bi testu-mota** irakurri beharko ditu ikasleak: **prentsakoak edota liburuetakoa**. Pentsatzekoa da testu horiek zehatz eta arin irakurtzeko eragozpenak izango dituztela. Haatik, ohartaraziko diegu testu horiei etekin handia atera diezaiekegula, dena ulertu gabe ere. Garrantzitsua da, hortaz, ikasleek argi izatea zeren bila jo behar duten testuak irakurtzen jartzen ditugunean; dena harrapatzen saiatzen badira, etsigarria izan daiteke irakurketa.

- o Unitatearen hasieran ikasleek **ukitu literarioa duten testu laburrak** irakurriko dituzte. Ikasleek gaia identifikatu beharko dute, eta, testuek duten sentimen-ukituaz jabetzeko, irakurketa ozena egiteko proposatuko diegu.
- o Ondoren, **prentsako gehigarri berezi batekin** egingo dute lan: **argazkiek eta titularrek** eroaten duten informazioa landuko dute; gai ezagunen inguruko **kronika luze samarrak** laburtu egin beharko dituzte; **inkesta batean** jendeak egindako adierazpenak zehatz ulertu beharko dituzte...
- o Hirugarrenik, **testu kritikoak eta iritzi-artikuluak** landuko dituzte. Kasu honetan, helburua izango da artikuluetan jorratzen den gaia zehazki zein den identifikatzea eta idazleak duen ikuspuntua eta artikuluak duen xedea erabakitzea, inferentziak eginez.

IDAZMENA: Maila honetako ikasleek ez dute idazteko abilezia aparta izaten, baina, beren mugak aintzat hartuta ere, tentuz jarduten badute eta testuaren antolaketa zaintzen badute, idatziz eraginkor komunikatu ahal izango dira. **Horrela, bi lan-mota proposatu dira unitate honetan:**

- o **Testuak egituratzen trebatzeko jarduerak:** hainbat ikaslek egindako pasarteak testu batean txertatu, testuak osatzeko; zerrendak ordenatu...
- o **Eraginkor idazteko estrategiak bereizteko eta gauzatzeko ariketak:** C atalean eta osagarri bezala eskaini den "Testuaren Sukaldean" atalean.

➤ **Gramatika eta diskurtsoa**

- o Unitate honetan, nagusiki, **deskribapena, azalpena** eta **argudioa** lantzen dira. Diskurtso-eredu horiek sistematikoki landuko dira **eragiketa** batzuen bitartez (sailkatu, baloratu, definitu, arrazoitu, ondorioztatu...).
- o Eragiketa horiek **azalpen egituratuetan** (ahozkoak eta idatziak) hartuko dute forma. Unitate honetan, ikasleak testuak egituratzeko zenbait eredu baliatzeko aukera izango du.
- o **Horrez gain**, orduen deklinabidea eta hitz-elkarketari buruzko hausnarketa batzuk ere eginaraziko zaizkio ikasleari.

Helburua da ikasleak beren baliabideez berbaldi landuagoak eratzea eta ulertzea. Ikasleen arreta hizketaldia antolatzeko elementu formaletara eramanez gero, helburua zapuzteko arriskua egon liteke.

Haatik, irakasleak pentsatzen badu gramatika berariaz lantzea mesedegarri izango zaiela ikasleei, unitatearen ibilbidean txertatzeko aukera izango du.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena

(6. or. ik. lib.) (3. or. irak. lib.)



A ATAZA: SABELAREN ERRITMOAN

- Oraingo eta txikitako otorduak alderatu
- Otorduetako ohiturak azaldu
- Urte-sasoi ezberdinetan jateko ditugun ohiturak idatzi Sabelzaleen Urtekarian

(8. or. ik. lib.) (9. or. irak. lib.)

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ



MO-1: GURE ELKARTEAK

- Azaldu nora joaten den jendea gizarte-bizitza egitera, nolako jendea den, zer egiten duten...
- Bideo-pasarte bat ikusi, eta elkartearen ezaugarriak zerrendatu
- Elkarteak sailkatu eta alderatu
- Elkarte batean egindako ospakizun baten irudiak ikusi, eta elkarteak dituen berezitasunak bereizi
- Taldearen aurrean elkarte-mota jakin bat eratzeko egitasmoa aurkeztu, eta defendatu
- Elkartearen eratzeko deialdi bat irakurri, eta antzeko bat egin

(31. or. ik. lib.) (28. or. irak. lib.)

IRAK/MINTZ/ENTZ/IDAZ



B ATAZA: GOZA GAITEZEN JIAIAZ

- Norbera azokara zertara eta zergatik joaten den azaldu. Ikaskideen azalpenei izenburu bana jarri.
- Azoka-egunetan zer egin daitekeen azaldu
- Azoka-egun bati buruzko bi artikulua irakurri, eta elkarri azaldu artikuluek diotena
- Irakurtzeko estrategiei buruz hitz egin
- Herrian azoka bat antolatzeko aldarrikapena idatzi

(14. or. ik. lib.) (15. or. irak. lib.)

IRAK/MINTZ/ENTZ/IDAZ



MO-2: ZAIN DEZAGUN JANA

- Janaritan gastatzen dugunari buruzko inkesta baten emaitzaren inguruan iruzkin bat egin ahoz; alderatu ikasleek ateratako ondorioak hainbat adituk ondorioztatuekin
- Gaiari buruz jasotako zenbait iritzi erabilita, gaiari buruzko artikulua bat osatu
- Hainbat pertsona janaren kalitatearen inguruan dituzten kezkek ulertu, eta nork bere iritzia eman, ahoz emandako ereduari jarraiki

(35. or. ik. lib.) (31. or. irak. lib.)

MINTZ/IDAZ/ENTZ

C ATAZA: GEUREARI EUTSI

- Jatetxe-mota ezberdinak sailkatu, eta horietako bakoitzak dituen ezaugarrien inguruko azalpena egin ahoz
- Euskaldunontzat sukaldaritzak duen garrantziari buruzko galdeketa bat egin ikaskideen artean. Emaitzak alderatu "Erabateko Sukaldea" liburuaren egileek elkarriketa batean diotenarekin
- Taldean testu bat prestatu, lehiaketa batean aurkezteko
- Sukaldaritza berriko jatetxe baten karta bat aztertu, eta lehiaketaren saridunentzat menu bat hautatu

(21. or. ik. lib.) (21. or. irak. lib.)

IRAK/MINTZ/IDAZ/ENTZ



MO-3: TESTUAREN SUKALDEAN

- Norberak sukaldean nolako abileziak dituen azaldu
- Eztabaidatu zergatik diren hain estimatuak sukaldaritza-kontuak
- Artikulu baten bi pasarte irakurri; bilatu antzekotasunak sukaldaritzaren eta idazketa-lanaren artean
- Artikuluak idazteko errezeta bat prestatu, HABEren webguneko 'ikaslearen gunean' dauden baliabideak erabilita, eta alderatu artikuluak dakarren proposamenarekin
- Identifikatu idazketa-lanaren eta sukaldaritzaren arteko aldeak; hitz egin idaztean izan ohi dituzten arazoei buruz

(41. or. ik. lib.) (36. or. irak. lib.)

IRAK/MINTZ/ENTZ/IDAZ



AUTOEBALUZIO ORRIA

(44. or. ik. lib.) (38. or. irak. lib.)

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

- Euskal Herrian jan-edanaren inguruan sortzen diren gizarte-harreman eta kezkez jardutea
- Jendearen jokabide sozialak zertan diren azaltzea eta horiei buruz iritzia ematea

AZPIGAIK

- Otorduak eta horien inguruko ohiturak (A)
- Azokak eta feriak (B)
- Ekitaldi jendetsuak (B)
- Sukaldaritza Euskal Herrian (C)
- Gure elkarteak (MO-1)
- Idazkuntza (MO-3)

HIZTEGIA

- **Otorduak:** gosaria, afaria, bazkalostekoa, askaria edo merienda...
- **Jan-edanak:** odolkiak, hestebeteak, txokolatea, esnegaina, txakolina, azpizuna, pikillo piperrak...
- **Ekitaldi jendetsuak:** garraioa, enkantea, segurtasuna, animazioa, lehiaketak, jende-andana...
- **Jatetxe-motak:** hari jakin baten arabera, atzerrikoak, erretegiak, eguneko otordukoak...
- **Sukaldaritza:** gozagarria, estimatua, erabatekoa, paregabea...
- **Kontsumoa:** gastua, kontsumo-ohiturak, lehentasunak, bidezko jokabidea, zuhurtasuna, kontzientzia...
- **Idazkuntza:** kohesioa, koherentzia, testuaren egitura, ideien antolaketa...

ELKARRERAGINA

- Norberarentzat garrantzitsuak diren gauzak azpimarratu (A) (MO-1) (MO-3)
- Ikaskideen artean galdeketa bat egin (A) (C)
- Gelako kideen ohiturak alderatu (A)
- Azokaren moduko ekitaldi jendetsuek dituzten abantailak azpimarratu, horien aurka azaldutakoei erantzunda (B)
- Interes orokorreko ekitaldi bat antolatzeko aldarrikapen bat egin (B)
- Eztabaidatu esketx batean egindako txantxaren egiazkotasunaz (C)
- Artikulu bat idatzi taldean (C)
- Taldean gai baten inguruan eztabaidatu, eta taldearen posturaren berri eman (MO-2)
- Iritzi baten defentsa egin, hainbat ikaskideren ekarpenak aintzat hartuta (MO-2)
- Artikulu bat osatu, taldeko kideen eta adituen iritzia erabili (MO-2)
- Artikuluak idazteko gomendio-zerrenda bat eratu (MO-3)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Zehatz ulertu eguneroko gai ezagunei buruzko ahozko bat-bateko azalpen laburrak (A) (B)
- Bideo-pasarte bat ikusi, eta zerrendatu toki batzuetan ohikoak ez diren jokabideak (MO-1)
- Entzun hainbat pertsonaren iritzia, eta identifikatu beren kezka (MO-1)
- Esketx labor bat ulertu, eta eztabaidatu egindako txantxaren egiazkotasunaz (C)
- Irratiko elkarrizketa batean liburu baten egileak gaiari buruz azaltzen duen ikuspuntua ulertu, eta geurearekin alderatu (C)
- Irratiko solasaldi bateko kideen azalpenak entzun, eta beren azalpenen egitura identifikatu (MO-2)
- Programa bateko hainbat ikusleren galderak ulertu, eta gaiaren gainean duten kezka inferitu (MO-2)
- Mahai-inguru batean solaskideetako batek egiten dituen azalpenak ulertuta, inferitu zein izan ote den kasu bakoitzean hizpide hartutako aztergaia (MO-2)
- Ohiturak ahoz deskribatu, hainbat xehetasun jasota: adibideak, iritzia, oroitzapenak, emozioak... (A)
- Azaldu nora joaten den jendea gizarte-bizitza egitera, nolako jendea den, zer egiten duten... (MO-1)
- Azoka-egunetako giroa deskribatu ahoz (B)
- Azoka-egun bati buruzko artikulu baten berri eman ahoz (B)
- Mapa kontzeptual bat osatu, eta jatetxeak sailkatzeko moduak azaldu ahoz (C)

- Jatetxe-mota nagusieneren ezaugarrien azalpena egin ahoz, emandako gidoi bati jarraituta (C)
- Ikaskideei gai bati buruzko galdeketa egin, eta emaitzen berri eman (C)
- Sukaldari trebea izateko gomendio-zerrenda bat eman (MO-3)
- Elkarte gastronomikoetan ematen ari diren aldaketei buruzko iritzia eman (MO-1)
- Gai bati buruz norberak duen iritzia azaltzea, irratiko saio baten testuinguruan (C)
- Gai baten gainean eztabaidatu ondoren, taldearen jarreraren berri zehatz eman (MO-2)
- Iritzi ezberdinen defentsa egin, iritzi jakin baten defentsa ahoz egiteko gidoia taldean prestatuta (MO-2)
- Zehatz ulertu galdeketa batean hainbat pertsonak emandako azalpenak (B)
- Prentsan argitaraturiko kronika bat irakurri, eta zehatz eman horren berri (B)
- Hainbat testu-pasarte kritiko irakurri, eta testu-pasarte horiek zeri buruz diharduten erabaki, norberak gai horretaz duen ezagutza baliatuta (C)
- Urte-sasoi bakoitzean ditugun ohiturei buruzko deskribapen laburrak idatzi, eta taldeko kide guztien ekarpenak testu batean lotu (A)
- Proposamen baten aldeko arrazoiak bildu taldean, eta azoka bat eskatzeko aldarrikapen bat idatzi, argumentuak modu logikoan ordenatuta (B)
- Artikulu bat taldean egin: informazioa bildu, hautatu eta antolatu; eskema eztabaidatu; pasarte laburrak idatzi eta orraztu; sarrera eta amaiera idatzi... (C)
- Artikulu batean ezabatutako pasarteak osatu, ikaskideen eta adituen iritzia erabili (MO-2)
- Artikuluak idazteko aholku-zerrenda bat egin (MO-3)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

A. DESKRIBAPENA:

- Deskribapenak egin (A)
- Mapa kontzeptual bat osatu (A) (C)
- Deskribapenak ozenki irakurri (A)
- Galdetegi bati erantzunez, deskribatu nor bere ohituren inguruko xehetasunak (A)
- Unea eta maiztasuna adierazteko baliabideak (B)
- Balorazioak egiteko baliabideak (B)
- Ekitaldi batek barneratzen dituen ekintzak zehatz adierazi (B)
- Jatetxe-mota ezberdinak deskribatu (C)

B. AZALPENA:

- Gustuak azaldu (B)
- Arrazoitu zergatik egiten den zerbait (B)
- Zerbaiten abantailak zerrendatu (B)
- Egindako galdeketa baten emaitzen berri eman (A) (C)
- Galdera-zerrenda bat antolatu, eta eskema egin (C)
- Hainbat testu-pasarte elkarren artean lotu (C)
- Sailkapenak egiteko baliabideak baliatu (C)

C. INSTRUKZIOA

- Sukaldari ona izateko gomendio-zerrenda bat egin (MO-3)
- Testuak idazteko errezeta bat egin (MO-3)

D. ARGUDIOA

- Gai baten gainean norberak duen ikuspuntua azaldu irratiko programa batean (C)
- Iritziak eta arrazoiak azalpen batean uztartu (MO-2)
- Hainbat iritzi txertatu testu batean (MO-2)
- Iritziak eta arrazoiak bereizi hainbat iritzi eta azalpenetan (MO-2)

E. BESTE BATZUK

- Orduak nola adierazi eta nola deklinatu (A)
- Hainbat hitz-elkarketa (B)

2. Atazak

A. ATAZA: SABELAREN ERRITMOAN

(165')

Helburu orokorrak

- Egunaren eta urtearen joanean ditugun jateko ohitura ezberdinak azaltzea eta alderatzea

Helburu zehatzak

- Ohiturei buruzko bat-bateko ahozko azalpen laburrak zehatz ulertzea
- Ohiturak ahoz deskribatzea, hainbat xehetasunen berri emanda: adibideak, iritziak, emozioak, oroitzenak...
- Urte-sasoi bakoitzean ditugun ohituren gaineko deskribapen laburrak idaztea
- Emozio-maila adieraztea eta norberarentzat garrantzitsuak diren gauzak azpimarratzea
- Gelako kideen ohiturak alderatzea

Zertan den

Ataza honetan, ikasleek aztertu eta adieraziko dute jateko moduak eta ohiturak nola aldatu eta aldatzen diren egunaren eta urtearen joanean.

Lehenbizi, garai bateko eta oraingo ohiturak alderatuko dituzte dituzte.

Amaitzeko, "Sabelzaleen Urtekaria" egingo dute; bertan jaso beharko dituzte urte-sasoi bakoitzari atxikitako ohitura eta gertakari nagusiak.

Ibilbide horretan barrena, ikasleek ahalegin berezia egingo dute beren iritziak, emozioak, oroitzenak, ikuspegiak eta abar zehazten eta azaltzen; horiek guztiak baliatuko dituzte gero eta hizketaldi landuagoak eratzeko.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (5')

- Bakoitzak aipatuko du bezperan zenbat otordu egin zituen, zein ordutan eta zer jan zuen.

Ataza: Nork bere ohituren berri eman ikaskideei (15')

- Denen artean osatuko dute eguneko otorduen zerrenda. Bigarren zutabearen maizenik jan eta edan ohi direnak zerrendatuko dituzte.
- Ondoren, mokadu arinagoak edota gutizia txikiak noiz hartzen dituzten aipatuko dute. Noiz, zer ordu aldera, zergatik...

Zuzenketa-orria

ORDUA*	OTORDUAK	ZER JAN / EDAN
07:00-10:00	Gosaria	Esnea, fruta, kafea, ogi-xerra txigortuak (tostadak), laboreak (zerealak), gailetak...
10:30-11:30	Hamaiketako	Ogitartekoak, kafea, ardoa, pintxoak, fruta...
12:00-13:00	Bazkალაurrekoa	Ardoa, bermuta, garagardoa, pintxoak, zizka-mizkak, olibak

12:30-15:30	Bazkaria	Barazkiak, eltzekariak, arraina, okela, arroza, postreak...
13:30-16:30	Bazkalostea	Kafea, tea, belar-urak, gozokiak, txokolatea...
16:00-19:00	Askaria edo merienda	Ogitartekoak, opilak, fruta, txokolatea...
18:00-20:00	Afari-merienda	Tortilla, sandwichak, txarkuteria, kontserbak...
19:00-23:00	Afaria	Bazkariaren antzekoa; beharbada, arinagoa
22:00-2:00	Afalostea	Gailetak, esnea, belar-urak...

*ORDUA: beste guztia bezalaxe, ohituren arabera izango da. Gurea eredu bat besterik ez da.

- Taldeka, bakoitzak azalduko du noiz egiten dituen otorduak eta zer jan ohi duen; eta, era berean, adieraziko dute zein otorduk baldintzatzen duen gehienbat beren bizimodua.

Feedbacka (5')

- Talde bakoitzean mintzatutakoaren berri emango diote talde osoari, eta zer egiten duten antzera eta zer ezberdin azpimarratuko dute.

Gramatika (15'): Orduak nola esan

- Ikasleek hainbat esaldi dituzte liburuan: ematen zaizkien aukeren artean zein den egokiena erabaki behar dute.
- Irakasleak zalantzak argituko ditu. Egoki baderitzo, arauak laburtzeko eskatuko die ikasleei edota HABEren ikaslearen gunera bidaliko ditu Euskara Hobetzen sailera, arau horiek zertan diren ikus dezaten.

Zuzenketa-orria

Ordu batean-edo bazkaltzen dugu normalean	Ordu batetan-edo bazkaltzen dugu normalean
Ordu batetik ordu bietara izaten dut libre	Ordu batetik ordu bira izaten dut libre
Zazpirak inguruan hasten gara afaria prestatzen	Zazpiak inguruan hasten gara afaria prestatzen
Hiruak baino lehen amaitu behar dugu	Hirurak baino lehenago amaitu behar dugu
Seiak eta laurdenean atsedean bat egiten dugu	Seiak eta laurdenetan atsedean bat egiten dugu
Afalostean ohitura dut esnea eta gailetak jateko	Afari ostean ohitura dut esnea eta gailetak jateko
Etxean bederatzi puntuko-puntu afaltzen dugu	Etxean bederatziak puntu-puntu afaltzen dugu
Hamarren aurretik ez dugu inoiz afaltzen	Hamarrak aurretik ez dugu inoiz afaltzen

OHARRA: Zuzenak urdinez.

Atazaostea (5')

- Ikasleek beren haurtzaroa ekarriko dute gogora, eta harrez gero otorduetan gertatu diren aldaketak zerrendatuko dituzte.
- Halaber, eskatuko diegu esateko ea txikitan zein otordutan gozaten ziren gehien eta zein duten orain gustukoena.

Ataza: Hainbaten azalpenak entzun, eta arratsaldeko askarietan izan diren ohitura-aldaketak zerrendatu (15')

- Guztien aurrean labur azalduko dute zein askari hartzen zuten lehen, orain arratsaldetan meriendatzen duten, zer gustatzen zitzaizen lehen eta zer gustatzen zaien orain.
- Jarraian esango zaie entzungo dituztela hainbat edadeko emakume garai bateko askariak nolakoak ziren azaltzen.
- [1. bideo-pasartea](#) entzun ahala ([2. eranskina](#)), egindako zerrenda egiaztatuko dute, eta emakumeetako bakoitzak aipatzen dituen datuak eta bitxikeriak jasoko dituzte.

Zuzenketa-orria:

	ASKARIA	BITXIKERIAK
Edurne	Ogi gainean gurina (etxean egina) eta azukrea. Gazta eta txokolatea ere bai. Garaian garaikoa ere bai; sagarrak...	Garai hartan mizkina zen; beti bokadiloa jan ezinik. Orain erraz gizentzen duenez...
Feli	Aralarren aitak egindako gazta eta etxean egindako ogia. Aldatzeko, txokolatea.	Amak Papeleran egiten zuen lana, eta bertan ematen zioten txokolatea.
Arantxa	Esne-gaina azukrearekin eta txokolate-ontza.	Leihoan jarrita esnea hozten eta berak harrapatu egiten zion; zaplazteko ederrak jaso zituen, esne-gaina hartzeagatik. Txokolatea ezkutuan izaten zuen amak. Oraintxe ere jango luke.
Brigida	Txorizo panplona Esne-gaina askotan Eztia eta gainean intxaurrak eta urrak.	Gutxitan izaten zuten txorizoa jateko aukera, eta beti hori jan nahian egoten zen. Eztia, urrak eta intxaurrak urte guztirako izaten zituzten.

Feedbacka (5')

- Taldeetan hartutako oharrak alderatuko dituzte.

Ataza: Ikaskideen artean galdeketa bat egin, eta otorduetako ohitura berriak zerrendatu (20')

- Taldeka, adieraz dezatela ea liburuan dauden ekintzak otorduekin bat egiten duten eta, hala bada, zein otorduekin.
- Ikasle bakoitzak euskaltegiko zenbait ikaskideri galdetuko die (talde berekoei edo beste talde batekoei) otorduren bati buruzko ohiturez: zer jaten duten, noiz, norekin, gustuko duten ala ez...
- Ondoren, ikasle bakoitzak bildutako informazioaren berri emango du taldearen aurrean. Azalpena txukun eta patxadaz egin dezatela eskatuko diegu, behar diren xehetasunak erantsita. Liburuan horretarako duten gida balia dezakete.

AZALPENA TXUKUN EGITEKO GIDA

1. Otorduak dituen ezaugarri nagusiak
2. Ordutegia, zenbat denbora
3. Norekin
4. Jendeak gustuko duen edo ez
5. Ondorioak

OHARRA

Azalpenak oso baliagarriak izan daitezke hizketaldi edo diskurtsoari buruzko hausnarketa egiteko; haatik, komeni da grabatzea, gero berriro entzun ahal izateko.

Feedbacka (15')

- Ikaskideen azalpenak entzun ahala, berriztat har daitezkeen ohiturak jasoko dituzte.
- Ondoren, guztien artean, liburuan dituzten galderen gainean eztabaidatuko dute

1. Zein da otordurik garrantzitsuen gehienontzat?
2. Zein otordu egiten du gusturago jendeak?
3. Zein da egiten ditugunetatik otordurik ugariena? Lehen ere horixe bera al zen?
4. Garai bateko otorduen aldean, oraingoak zer dira: luzeagoak ala laburragoak?
5. Orain lehen baino otordu gehiago ala gutxiago egiten ditugu egunean zehar?
6. Zein otordu egiten dugu maizago familian? Eta bakarrik? Eta lagunekin?
7. Lehen bezainbeste estimatzen al dugu mahaian jarri eta patxadaz jatea?
8. Gero eta otordu gutxiago egiten direla esango zenukete? Nolakoak dira ospakizun berezietako bazkariak orain?

Gramatika eta diskurtsoa (10')

- Irakasleak grabaketak entzun, eta ikasleek azalpenak nola egin dituzten aztertuko dute: zeinek egin duen azalpenik antolatua, zerrendak modu logikoan ordenatu al dituzten, nola harildu dituzten zerrendaren osagaiak, azalpena ondo hasi eta bukatu duten...
- Ikasleei galdetu zein den beren iritzia. Galdera hauek erabil daitezke:

- Zuen ustez, zein izan da azalpenik argiena?
- Zeinek egin du azalpenik atsegina?
- Zerrenda azaldu baino lehen, pentsatu al duzue zein hurrenkeratan aipatu gauzak?
- Zerrenda aurkezteko antolatzaile batzuk erabili dituzue. Zein?

- Egindako lana aztertu eta gero, denon artean azalpenak txukunago egiteko irizpideak idatziko ditugu horma-irudi batean.

2

Atazaurrea (5')

- Guztien artean zerrendatu urtaro bakoitzeko jan-edan bereziak. Zerrenda horretara eraman ditzatela, halaber, jan-edanaren gaineko ospakizunik ezagunenak (sagardoaren eguna, ardikiarena...)

Ataza: Urtekari bat idatzi, urte-sasoi bakoitzeko jateko ohiturak jasotzeko (40')

- Ikasleak lau taldetan banatu. Talde bakoitzean urtaro baten gainean egingo dute lan.
- Lehenbizi, hartu atazaurrean egindako zerrenda eta berraztertu zein den jateko ohitura edota ospakizun bakoitzaren berezitasunik nabarmenena: zergatik den jendearen gustuko, urtaroarekin duen lotura...

JATEKOA	BEREZITASUNA
Gaztaina erreak (udazkenean)	Hotz denean, eskuak berotzen dizkigute

- Banaka, urtaroari buruzko pasarte bat idatziko dute, jan-edanak aitzakia hartuta. Testuak elkarren artean trukatu, eta okerrak zuzendu.

(Adibidez)

NEGUA

la oharkabean murgildu gara urteko egunik motzenetan eta gaurik
luzeenetan. Abenduan lehen elurtea irits daiteke
Euskal Herriko bazter askotara. Oraindik ere, ohikoa da garai honetan txerria hiltzea. Txerria hil ondoren, odolkiak,
txistorrak,
urdaiazpikoak, etab. prestatzen dira.

- Ikasle bakoitzak bere pasarte ozen irakurriko die beste guztiei.
- Amaitzeko, bakoitzak bere urtekaria idatziko du, liburuan duen testua osatuta.

SABELZALEON URTEKARIA

Urte-sasoi bakoitzak badu berezko zaion zerbait; sukaldea eta natura batzen dituen zerbait. Horixe da geure urtekari honetan erakutsi nahi duguna.

Azaroan hasiko gara. San Martin aldera epeldu egiten du batzuetan, baina hotza sentitzen hasten gara.

Udaberrian aldartea piztu egiten da berriro. Argia, usainak, koloreak... zentzumenen gozamina!

San Joanetarako eguzkiak goi-goia jo du, eta
eltzekoek eta salda beroek utzi dute mahaia.

Baina, ohartu orduko, berriro ere San Migel etorriko
zaigu gaztaina beroen eta txokolate
gozoaren usainen artean.

Feedbacka (10')

- Zoriz banatu ikasleen testuak ikaskideen artean.
- Irakur dezatela egokitutako kidearen testua, eta adieraz dezatela zein den gehien gustatu zaien urtekaria.

B. ATAZA: GOZA GAITEZEN JIAIAZ

(235')

Helburu orokorrak

- Euskaldunon Egunkariaren gehigarri bat oinarri, azoka eta feriek duten giroa deskribatzea eta ekitaldi horien arrakastaren gakoaz eztabaidatzea

Helburu zehatzak

- Telebistako erreportaje labur batean esandakoa ongi ulertzea
- Azoka-egun bati buruzko artikulu baten berri ematea ahoz
- Euskaldunon Egunkariko gehigarri berezian azaldutako testuen ideia nagusiak ulertzea, hainbat estrategia erabilia
- Galdeketa batean zenbait pertsonak emandako azalpenak zehatz ulertzea
- Interes orokorreko ekitaldi bat antolatzeko arrazoiak txukun ematea
- Azokaren moduko ekitaldi jendetsuek dituzten abantailen eta desabantailen gainean eztabaidatzea

Zertan den

Unitatearen atal honetan ikasleek Euskaldunon Egunkariko gehigarri berezi bateko testu batzuk irakurriko dituzte, hainbat ataza burutzeko.

Ikasleek argazkiak, artikuluen izenburuak eta artikuluetako batzuk baliatuko dituzte azoketan zer erosi ohi den azaltzeko, zertara joaten den jendea, nolako giroa egon ohi den... Amaieran, azokaren moduko ekitaldi jendetsuek dituzten alde on eta txarrez eztabaidatuko dute.

Ataza horietan, aldi-aldi, irakurmen-estrategia batzuk baliatuko dituzte, eta horren gainean ere gogoeta eginaraziko diegu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (20')

- Marraski eta argazkiei erreparatuta, herri horietan zein azoka den berezia asmatu behar dute; hau da, azokak eta herriak lotu behar dituzte.

HERRIAK	AZOKAK
IPAR EUSKAL HERRIA	
Ezpeleta	Piperraren azoka
NAFARROA	
Elizondo	Azienda azoka
ARABA	
Antoñana	Eztiaren azoka
Gasteiz	Gabonetako azoka
BIZKAIA	
Durango	Liburu azoka
Gernika-Lumo	Barraskiloen eguna
Sopuerta	Hestebete azoka

Markina-Xemein	Baserri eguna
Mendata	Hegazti azoka
GIPUZKOA	
Getaria	Txakolin eguna
Idiazabal	Gazta eguna
Orio	Bixigu eguna
Zarautz	Mahats bilketaren jai
Zaldibia	Ardiki eguna
Errenteria	Eskulangintza azoka

- Ordiziako Azokari buruzko [2. bideo-pasartea](#) ikusiko dute. Apuntatuko dute zer erosten duen Martin Berasategik eta zertarako, zein plater prestatzeko.

Zuzenketa-orria:

PRODUKTUAK	PLATERA
Baba berriak	Baba berrien zopa
Karakolak eta zizak	Ziza berrien taloa karakolekin
Patatak	Patata- eta txingar-pastela
Errezil sagarrak	Errezil sagarraren zopa

- Taldean pentsa dezatela, egun horretan bertan azokara joanez gero, ea zer aurkituko luketen eta zein menu egingo luketen beraiek erositakoarekin.

Gramatika (10')

- Ikasleek liburuan dituzten janarien izenak euskaratuko dituzte.

Zuzenketa-orria:

Golden sagarra Kanarietako platanoa Udaberriko hostobildua Baba-zopa Baba berrien zopa Patata-tortilla Patata-tortilla ogitartekoa Patata-tortilla tipuladuna (patata- eta tipula-tortilla) Tipula-odolkia Txerri-saiheskia Idi-txuleta/ behi-txuleta Basmati arroza Arroz luzea Valentziako arroza Arrain-arroza Arroz-esnea
--

Ataza: Gernikako Azokara joandako batzuen testigantzak irakurri, eta titularrak jarri (15')

- Ikasleak bosnaka jarriko dira. Bakoitzak irakurriko du ikasleen liburuko eranskinetan dituzten testigantzetako bat. Era berean, liburuko galderetan jasotako informazioa bilatuko dute.
 - Zer egin ohi du?
 - Egun osorako joaten al da?
 - Beti etortzen al da?
 - Zer gustatzen zaio bereziki?
 - Zer dela eta etorri da?
- Horren berri emango diote elkarri. Denon artean titular bana jarriko diete testuei.

Feedbacka (10')

- Eman jatorrizko izenburuak, eta talde bakoitzean aldera ditzatela beraiek prestatutakoekin (irakaslearen liburuan: [3. eranskina](#)).

JATORRIZKO TITULARRAK:

ELKARRIZKETATUA	TITULARRA
Eunate Urrutia	"Normalean, urtero etorri ohi naiz Gernikako Azokara"
Jon Zorroza	"Duda barik, nahiago dut goizeko giroa"
Rosa Negrete	"Giro aparta egoten da; egun handia da"
Maria Luisa Aurrekoetxea	"Zerbait aukeratzekotan abereak aukeratu nituzke"
Juan Beraskoetxea	"Tradizio ugari bat egiten dute Gernikako azokan"

- Liburuan dituzten galderen gainean eztabaida dezatela.

IRAKASLEARENTZAKO OHARRA:

Kazetariak hautatu dituen titullarrek bi lan egiten dituzte testuan:

- o Irakurleari jakinarazi zer nolako kontuak esango dituzten elkarrizketatuek
- o Azokaren inguruan jendeak duen iritzi orokorraren irudi bateratua eman.

Gramatika eta diskurtsoa (15')

- Taldeka jarriko dira. Bakoitzak liburuko taularen gelaxka bat edo bi osatuko ditu. Horretarako, bost testigantzak irakurri beharko ditu.

Zuzenketa-orria:

MAIZTASUNA	UNEA	SALGAIK / ERAKUSGAIK
- normalean	- urriko azken astelehenean	- animaliak
- batzuetan	- egun osoa	- behiak
- gehienetan	- egun honetan	- pottokak
- ahal dudanean	- goizean	- bertoko produktuen <i>stand</i> -ak
- sarritan	- arratsaldean	- ortuari
- urtero	- iluntzean	- azoka bera
- behin bakarrik	- goizaldera arte	- idiak
- azken urteetan	- iluntze aldean	- zaldiak
- beti	- egun osoa igaro eta ondo	- gazta-erakusketak
- urtero-urtero	pasa ostean	- idi-probak
- txikitatik	- goiz-goizean	
- betidanik	- goizeko hamarretarako	

GUSTUAK	BALORAZIOAK	ARRAZOIAK
<ul style="list-style-type: none"> - dena gustatzen zait - zerbait aukeratu behar izanez gero..... aukeratuko nituzke - atsegin dut - nahiago dut - iruditzen zait - gehien gustatzen zaizkidan gauzen artean zaila da aukeratzea - gustura egoten naiz 	<ul style="list-style-type: none"> - primerakoa izaten da - egun garrantzitsua da - parrandarako primerako lekua - ezin hobeak - duda barik - zeharo garrantzitsua - zoritxarrez - giro aparta - egun handia - zalantzarik gabe - zalantza barik - hainbeste gauza dira! - primeran - bapo-bapo jan - jaiegun itzela - oso garrantzitsua da - momentu oso ederrak - arras garrantzitsua - egun berezi-berezia - oso interesgarriak - izugarri gozatzen naiz - laguntzea merezi du 	<ul style="list-style-type: none"> - inoiz etorri ez banaiz, ezin izan dudalako izan da - denbora librea dudalako - hainbeste gauza dira! - lana neukan eta - nahi bai, baina ezin; horixe zen arazoa - orain ez ditugunez

- Elkarri emango diote aurkitutakoaren berri. Ikaskideen zalantzei erantzungo diete.

Ataza: Azokei buruz norberak duen ikuspuntua ahoz azaldu (20')

- Ikasle bakoitzak, liburuan duten ideien mapa erabilita, pentsa dezala gidoi bat bere azalpena egiteko: zertara joaten diren, zer egiten duten, zer bilatzen duten...

Mapa:

- Ba al duzue azoketara joateko ohiturarik?
- Zer erosi ohi duzue?
- Zertan ematen duzue denbora?
- Zer aldatuko zenukete?
- Zer duzue gustukoena?
- Taldetxotan bilduko dira. Txandaka beren ikuspuntua azalduko dute, Gernikako azokara joandakoen moduan.

Feedbacka (10')

- Entzun ahala jasoko dute goiko taulan azalpenean erabilitako hizkuntz baliabideak: maiztasuna, gustuak...
- Ondoren, titular bat jarriko diote egindako azalpenari.

IKASLEAK			
IZENBURUAK			

Atazaostea (10')

- Ataza honetan testuen irakurketa xehea bultzatu da. Komeni da ikasleekin puntu hau aztertzea. Horretarako, taldean liburuan dituzten galderei buruz hitz egingo duzue.
 - Zeren bila jo duzue testuetara? Zertarako erabili duzue geroago?
 - Lana erraz eta azkar egin ahal izan al duzue?
 - Irakurtzerakoan helburu garbia izateak azkarrago irakurtzen laguntzen duela uste al duzue? Zergatik?
 - Zein ondorio ateratzen duzue esperientzia honetatik?

IRAKASLEARENTZAKO OHARRA:

Ikasleei ohartarazi bi kontu hauetaz:

- o Helburu zehatzarekin irakurtzen dugunean ez dugu zertan dena ulertu edota gogoan jaso.
- o Ez dugu berdin irakurtzen kasu guztietan. Ez da gauza bera aztertzea nola dagoen zerbait idatzita; edota ulertzea ideia funtsezkoenak; edota denbora-pasarako irakurtzea...

2

Atazaurrea (15')

- Ikasleak bikoteka jarri. Bakoitzak osatuko du liburuan duen ideien mapa bana, azoken moduko ekimenak nola suspertu pentsatzeko.
 - A ikasleak** ondorengo arlo horietako eginkizun nagusiak: saltokiak, garraioa, girotzea, garbitasuna.
 - B ikasleak** azoka batetik ateratzen diren onurak: ostatu/tabernek, udalak, bertakoek, bertoko produktuek.

Ataza: Erantzuna prestatu (15')

- Binaka elkartuta, erantzun bat prestatu, liburuan dauden galderak egin dituztenei emateko.
 - Salgai jartzen dituzten produktuak ohi baino garestiago daude
 - Bizilagunentzat gurutze-bidea da egun hori: ezin irten kalera lasai, zikinkeria, zarata...
 - Jendeak begiratu, bai; baina erosi, gutxi. Tabernetan gastatzen dute dena.
 - Azokek hiri-usaina dute orain; kalekumez betetzen dira, eta horiek giroa "kutsatu" egiten dute.

Atazaostea (10')

- Taldean hitz egin emandako erantzunei buruz, eta alderatu.

3

Ataza: testu bat irakurri, eta mamia azaldu (15')

- Ikasleak binaka jarriko dira. Bakoitzak hartuko du [4. eranskinean](#) dauden bi testuetatik bat ("Ohiturak lagun", edo "Jende andana eta jai giro aparta").
- Irakur dezatela testua azkar samar, eta elkarri azaldu ideia nagusiak.
- Gero, lasaiago irakurriko dute testua, eta esaldi gakoak azpimarratuko dituzte. Esaldi horietan oinarrituta, egin diezaiotela testuaren laburpena ahoz bikotekideari.
- Denon artean, ados jarri, eta testuetako ideia nagusiak bilduko dituzte.

Atazaostea: Azoken abantailen eta desabantailen zerrenda egin (40')

- Ikasleek liburuan duten taulan zerrendatuko dituzte azoka nagusien moduko ekitaldien alde eman daitezkeen arrazoi nagusiak. Zerrenden berri emango diote taldeari
- Euskal Herriko Azoken Gidaren sarrera irakurriko dute (5. eranskina), eta bertatik hainbat argumentu erauziko dituzte, beren zerrendara eramateko.

Zuzenketa-orria:

- Herriko nekazaritza- eta arrantza-produktuak merkaturatzeko modurik bidezkoena da. Ekoizleak berak saltzen du zuzenean.
- Azoka eta merkatuek arrakasta itzela dute Euskal Herri osoan.
- Beste azoketan eguraldia txarra ere ez ohi da oztopo izaten jendea bertaratzeko
- Herri askotan ezezkoa eman behar izaten diete postua jarri nahi dutenetako hainbati leku faltagatik.
- Beste herrietan azoka-guneak etengabe handitu beharrean daude.
- Azokarekin batera herriaren izen ona eta distira areagotu egiten da.
- Euskal kontsumitzailea kalitatezko produktuen eta artisau-metodoen aldekoa da, eta horrek bultzatzen du azoketara.

- Ondoren, honelako ekitaldiek sortzen dituzten arazoak eta deserosotasunak zerrendatuko dituzte.

UDALARENTZAT	BIZILAGUNENTZAT	HERRIKO MERKATARIENTZAT	GIDARIENTZAT	BESTE

- Txandaka liburuan duten galderari erantzungo diote:
 - Zeuen herri edota auzora etorrita, merezi al du horrelako ekimenak bultzatzea? Zergatik?

Feedbacka (15')

- Ikaskideek entzun ahala jasoko dituzte bakoitzak emandako iritzia eta arrazoiak horren moduko taula batean.

IRITZIA	ARRAZOIAK

- Aldeko posturen eta aurkako posturen argumentuak laburtuko dituzte denen artean, eta taldean zeinek eman dituen argumenturik onenak erabakiko.

Gramatika eta diskurtsoa (15')

- Taula batean jaso ditzatela iritzia emateko eta diskurtsoan arrazoiak txertatzeko erabil litezkeen formak.

IRITZIA	ARRAZOIAK
Uste dut Iruditzen zait Esango nuke Garbi dago	Zergatik? Bada,-lako Izan ere... Hainbat arrazoi eman daitezke

C. ATAZA: GEUREARI EUTSI

(270')

Helburu orokorrak

- Euskal Herrian dauden jatetxe eta sukaldaritza ezberdinen ezaugarrien berri ematea
- Euskal sukaldaritzaren orainaz eta geroaz dugun ikuspuntua azaltzea.

Helburu zehatzak

- Esketx labor bat ulertzea eta eztabaidatzea egindako txantxaren egiazkotasunaz.
- Irratiko elkarrizketa batean liburu baten egileak gaiari buruz azaltzen duen ikuspuntua ulertzea eta geurearekin alderatzea.
- Jatetxeak sailkatzeko modu ezberdinak azaldu ahoz.
- Jatetxe-mota nagusien ezaugarrien azalpena egin ahoz, dituzten mugak azpimarratuta.
- Ikaskideen galdeketa bati erantzunda nork bere iritzia azaltzea.
- Egindako galdeketa emaitzak ahoz azaltzea.
- Gai bati buruz norberak duen iritzia azaltzea irratisaio batean.
- Testu-pasarte laburrak irakurri, eta pasarte horietan idazleak zehazki zeri buruzko xehetasunak ematen dituen erabakitzea.
- Artikulu bat idaztea taldean, idazkuntza-prozesuaren urrats nagusiak azaleratuta.

Zertan den

Ataza honetan, jatetxeei eta gastronomiari buruz jardungo dugu.

Lehen atalean, ikasleek jatetxe-mota ezberdinen ezaugarriak aztertuko dituzte, eta noiz diren gomendagarri eta noiz ez eztabaidatuko dute.

Bigarrenean, euskal sukaldaritzari buruz hainbat gastronomok duten ikuspegiak eztabaidatuko dute.

Gero, lehiaketa baterako testu bat idatziko dute gai horri buruz, eta, azkenik, nork bere iritzia emango du euskal sukaldaritzak hartu beharko lukeen norabideaz.

Ikusten denez, ataza honetan ikasleek beren argudiatzeko abileziak baliatu beharko dituzte, helburu ezberdineko jarduerak burutzeko. Gainera, artikulu orokorrak idazteko oinarrizko estrategiak lantzeko aukera

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (15')

- Ikasleek liburuan duten taula osatuko dute. Bertan hainbat jatetxeren ezaugarriak jaso, eta horrelakoetara noiz merezi duen joatea zehaztuko dute.

JATETXE-MOTA	EZAUGARRIAK	NOIZ JOAN?
Har eta jan modukoak	Platerak bistan; ez soilik paperean idatziak	Eguneko menua jateko egokiak

- Zerrenden berri emango diote elkarri. Zerrenda bateratu bat egingo dute.

Ataza: Jatetxeak sailkatzeko modu bat aurkeztu (20')

- Taldeka liburuan duten mapa kontzeptuala osatuko dute. Bertan hainbat irizpideren arabera sailkatuko dituzte jatetxerik ohikoenak.

Zuzenketa-orria (Zenbait adibide):

<ul style="list-style-type: none">• PREZIOA:<ul style="list-style-type: none">- Merkeak: bokategiak, hanburgeseriak, eguneko menuak, txinatarrak...- Bereziak: erretegiak, italiarrak, sagardotegiak...- Garestiak: sukaldaritza berria, hoteletako jatetxeak, itsaskiak ematen dituztenak...• JANARI-MOTA:<ul style="list-style-type: none">- Soila: hanburgeseriak, pizzeriak...- Tradizionala: eguneko menua, erretegiak, sagardotegiak, mariskeriak...- Berezia: atzerrikoak, sukaldaritza berria, pintxoak edota arrazio txikiak ematen dituztenak...• EGOITZA / DEKORAZIOA:• KARTA / MENUA:• ZERBITZUA:
--

- Azalpena egiteko baliagarriak izan daitezkeen baliabide testualen zerrenda osatuko dute.

Zuzenketa-orria:

Aurkezpena egiteko esaldiak	Irizpideak aditzera emateko etapideak	Zerrendak egitekoak
<ul style="list-style-type: none">• Jatetxeak hiru multzotan banatu ditugu• Hiru jatetxe-mota bereiztu ditugu• Jatetxeak modu askotan sailka daitezke• Hainbat irizpide erabil litezke jatetxeak sailkatzeko• Jatetxeak, normalean, x-en arabera sailkatzen dira• ...	<ul style="list-style-type: none">• Prezioa kontuan hartuta• Ematen duten janariaren arabera• Egoitzari begiratzen badiogu...• Kartak ere oso desberdinak dira• ...	<ul style="list-style-type: none">• Hasteko, jarraitzeko, gero...• Batzuk, beste batzuk...• Lehenik, bigarrenik, azkenik• Batetik, bestetik, gainera...• Hirigunean, inguruetan, mendian....• ...

- Taldeak berrantolatatu, eta kide bakoitzak txandaka sailkapena egiteko bere eredia azalduko du.

Feedbacka (5')

- Kideek, entzun ahala, erreparatuko diete eredu ezberdinen arteko aldeei, eta horretaz hitz egingo dute.
- Halaber, azalpenaren kalitatea ere aztertuko dute: argia eta ordenatua izan den, lasaitasunez jardun duten, ideiak ondo lotuta azaldu dituzten...

Ataza: Jatetxe-mota bakoitzak dituen ezaugarrien berri eman ahoz (40')

- Ikasleek "Jatetxeen taxonomia" izeneko artikuluan bereizten diren bederatzi jatetxe-moten izenak sailkatuko dituzte bi multzotan: hari jakin baten arabera, fast-food, sagardotegia, atzerriko jatetxeak, eskergak, bokategiak, erretegiak, eguneko otordukoak eta restopak. Gainera, banaketa zeren arabera egin duten azalduko dute.

- Jarraian, artikulua bi atalen sarrerak irakurriko dituzte. Gero, beren proposamena artikulua idazleak egindakoarekin alderatuko dute, eta zer esan nahi ote duen idazleak ilundutako pasarteekin eztabaidatuko dute.

Zuzenketa-orria

Has gaitzen soto ilunetatik (jaketxe soilenak; egoitza berezirik eskatzen ez dutenak)

Behetik gorako norabidean jarraituko dugu (soilnetatik sofistikatuenetara; merkeenetatik garestienetara)

- Ikasleek hainbat jaketxe-motari buruz artikulua egileak egiten dituen iruzkinak irakurriko dituzte, eta zein jaketxe-motari dagokion bakoitza erabaki beharko dute.

Zuzenketa-orria:

FAST-FOOD: Bertan diharduten langileak ez dira ostalaritzako profesionalak, adiera klasikoan. Bezeroek ez ohi dute bertan jaten, edo paretara begira gelditzen dira banan bana. Erregailu eta frijigailu itzelak nagusi; ez jan onik, ez giro goxorik. Bakardadea eta burrunba soilik.

BOKATEGIAK: Tranpolin gisakoa izaten da, dirua janetan xahutu ordez, bestetan gastatu ahal izateko. Gauak aho luze.

HARI JAKIN BATEN ARABERAKOAK: Ez dira negozio onak, ez dago lehiakortasun handirik, ez dute tren-karrilez kanpoko aukerarik... Ez dute funtzionatzen; eskaintza monotonoa bilakatzen delako aurrenekoaz gero. Ongi ez dagoen zerbait egokituz gero, nori erreklamaterik ez, bertako langileek ere moduko prekarioan kontraturik daudelako gehienetan. Mahai-aulkiak ez dira garbitzen zikindutakoan, langile-txanda aldatzean baizik; komunak ezta orduan ere.

ERRETEGIAK: Horrelakoetan, profesionaltasunik ezaren truk sekulako sablazoak nozitzeko aukera egokia izango duzu. Lehengaia ona edo txarra (segun eta), zerranda motza izaten da, postrea industrialak. Eraikinaren barnealdeko apainketa, tamalgarria oro har: ukuiluetan fluoreszenteak, zoruan hormigoia eta paretan goldea, sega edo igitaiak.

SAGARDOTEGIAK. Lehengaia ona izan ohi da baina mila duro inguru utzi beharko dituzu nagusiaren B kontuan handik ateratzean. Mendebaldeko kalekumea, yupi-jasp eta zeinahi egokieratako ezkongabea gustura joatean da horrelakoetara astegunean. Bezeroak ez du deus balio hor, oraindik aski klientela baduelako, ustez.

ATZERRIKO JAKETXEAK. Behin behineko sailkapena: italiarrak eta besteak. Lehengai urria alboko dendatik dakarte. Negozioaren euskarria karro-poltsa bakarrean ohi darama sorterrian gamelu-txofer, sermolari edo tximeleta-ehiztari artatsua zen nagusiak.

ESKERGAK. Berdintsuak dira hauek denak, globalizazioaren aitzindari. Labe-garrietako burrunbadaren parekoa, telebista lagun. Kaleratzean, bake santua: txirristak; dei nazazu bihar goizean "tema de logistika" jorratzeko; argazkiak.. Baina ederki kostata: janaria nekez kobratuko dizute mila durotik behera.

EGUNEKO OTORDUKOAK. Askok tradizioari irmo eusten diote: fariaren kiratsa ezpainetatik hedatu, erlojuari begira eta, belaunak zabaldua, brageta lotuz atera ohi da bertatik gizona. Denetan ikusiko duzu telebista piztuta inor begira ez dagoela. Hegoaldean, potajea, berdura, jaki frijitua edo, ordezko, tripakiak, flana eta fruta; iparraldean, potajea, berdura, arrain edo haragia saltsan, gazta eta fruta.

- Edorta Agirreren artikulua aipatu gabe gelditu dira goi-mailako sukaldaritza eskaintzen dituzten jaketxeak. Ikasleek gaur egun jaketxe arrakastatsu batek zaindu beharreko baldintzak zerrendatuko dituzte.
- Ondoren, [3. bideo-pasarte](#) ikusiko dute ikasleek. Esketx horretan, Kike Amonarrizek txantxa bat egiten du; ikasleek berak aipatzen dituen ezaugarriak eta programara joandako sukaldariak erantzundakoa jasoko dituzte.

Zuzenketa-orria:

FRANCOISEN IKUSPEGIA	SUKALDARIEN IKUSPEGIA
Jatetxe dotore baina garestia Janari goxoa baino eskasa Elikagai kalitatezkoak, baina izen arraroak	Ez daki zer den jatetxea Ez da arraziorik ematen; dastapena egiten da Ez du inork eskatuko ulertzen ez den zerbaiz

- Ikasle bakoitzak jatetxe-mota baten deskribapen kritikoa prestatuko du, liburuan dituen jarraibideak zainduta. Horretarako, irakasleak ikasle bakoitzari emango dio jatetxe-mota baten izena paper batean idatzita. Ikasleak besteen aurrean egingo du azalpena.

JATETXE-MOTA:

- Ezaugarri orokorrak:
- Arazoak:
- Nori gomendatu:

Feedbacka (5')

- Ikaskideek asmatu egin behar dute zein jatetxe-motari buruz ari den hizlaria.
- Era berean, azalpena zehatza eta antolatua izan den adieraziko dute.

2

Atazaurrea (10')

- Zein dira Hasier Etxeberria (kazetaria, idazlea), Luis Irizar (sukaldaria) eta Julian Bereziartua (sendagilea)?
- Ikasleek hiru lagun horiek idatzitako "Erabateko sukaldea" liburuan dauden lau esaldi irakurriko dituzte, eta beren iritzia emango.
 - Sukaldea kasik erlijioa da geuretzat.
 - Ondo jaten duenak ondo edan ohi du; ondo edaten duenak ondo egiten du lo. Ondo lo egiten duenak ez du bekaturik egiten eta bekaturik egiten ez duenak paradisua ezagutzen du.
 - Paradisua berriz egin beharko balitz, lurralde txiki honetan eraikiko luke Goikoak.
 - Jaten duguna gara, ez besterik.

Ataza: Ikaskideei galdeketa bat egin, eta emaitzak alderatu adituek esaten dutenarekin (40')

- Ikasle bakoitzak zerrendako galdera baten ardura hartuko du. Ikaskideei galdera hori egingo die. Galderari zuzenean atxikitako beste kontu batzuk ere galdetu ahal izango dituzte; beti ere, beste ikaskide bat ari ez bada horren galde.

- Esango al zenuke aparteko leku batean bizi garela?
- Gastronomía artea dela uste al duzu?
- Zergatik estimatzen dugu hainbeste jana?
- Sukaldeko lana gozagarria al da?
- Animalien aldean zori handiagoa al dugu jateko kontuetan?
- Zergatik dugu hain sukaldaritza aberatsa Euskal Herrian?
- Zeini zor diogu gehiago: etxeoandreei ala sukaldari profesionalei?
- Ba al dago munduan Euskal Herriko sukaldaritza bezalakorik?
- Jan beharrak erabaki al du gizakiaren historia?
- Uste al duzu jateko kultura dela tximino izatetik gehien libratzen gaituena?

- Bakoitzak jasotako iritzien laburpena prestatuko du, eta ikaskideei jakinaraziko.
- Ondoren, [4. bideo-pasarte](#)a entzungo dute. Bertan Hasier Etxeberriak bere ikuspuntua ematen du. Oharrak jasoko dituzte.

Feedbacka (5')

- Bakoitzak, txandaka, esango du zein diren gelako kideen eta "Erabateko sukaldea" liburuaren egileen ikuspuntuaren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak. Bakoitzak hitz egin dezala galdeketa aztertu duen gaiari buruz.

3

Beharbada, testua idazten hasi aurretik, trikimailu eta orientabide batzuk nahi izango dituzte ikasleek, lana taxuz egiteko. Hala bada, lanari ekin baino lehen, jo ezazue material osagarrietako 'Testuaren sukaldean' izeneko atazara, testuak nola landu ikasten lagunduko digu eta.

Ataza: Testu bat prestatu, idazlan-lehiaketa batean aurkezteko (40')

- Taldeka bilduko dira ikasleak. Herrian gastronomiari buruzko aste bat antolatu dute, eta euskaltegi-taldekako ikasleentzako idazlan-lehiaketa prestatu dute. Lehiaketan gai bezala jarritako galderari erantzun bat emango diote. Erantzun hori idatzi egingo dute (5-6 esaldi). Erantzunak ikaskideei irakurriko dizkiete. Alderatu egingo dute erantzunen tonua, edukia, ikuskera...

IDAZLANA EGITEKO JARRAIBIDEAK

- Gaia: **Nolako garrantzia du gastronomiak Euskal kulturean?**
- Saria: **Afari ederra elkarte batean, sukaldari ospetsu batek prestatuta.**
- PROZEDURA:

1. Taldeka bildu, eta saiatu hizpide jarritako galderari erantzun bat ematen bospasei esalditan.
2. Egizue eskema bat, eta ez ditzala izan lau atal nagusi baino gehiago. Kontuan izan zein den funtsean garatu nahi duzuen ikuskera; balia zaitezte gorago landu dugun galderaz-zerrendaz.
3. Taldeko kide bakoitzak idatz dezala testuaren pasarteetako bat. Jar diezaiola izenburua.
4. Testua ikaskide batekin trukatu. Hartu hiru kolore ezberdineko margoak (errotuladoreak adibidez).

- Margotu urdinez paragrafo bakoitzean ideia nagusia jasotzen duen esaldia
- Margotu horiz ideia hori osatzera edota argitzera doazen xehetasunak
- Margotu berdez ideiak elkarren artean lotzeko erabili dituen esaldi edota egiturak

5. Aztertu ea egoki idatzita dagoen pasarte (ea pasarte orekatua den, lehen begi-kolpean ulertzen den...). Hala ez bada, pentsatu testua orrazteko moduren bat.
6. Denon artean pentsatu sarrera bat eta amaiera bat. Gida zaitezte lan honen hasieran idatzi duzuen pasarteaz (galderaren erantzuna).

- Ondoren, eskema edota mapa kontzeptual baten bidez, testuaren egitasmoa eratuko dute. Elkarri aurkeztuko dizkiete prestatutako eskemak. Entzundakoaren arabera berraztertu norberaren eskema, eta erabaki aldaketaren bat egin edo ez.
- Taldeko kideetako bakoitzak testurako pasarte bat idatziko du. Beste kide batekin trukatu du, eta horrek, liburuko jarraibideei segituta, pasarte egokiro idatzita dagoen ala ez aztertuko du. Taldeari aurkeztu.

- Jarraian, sarrera eta amaiera prestatuko dituzte denon artean. Horretarako, atazaren hasieran idatzi duten pasartea erabiltzeko proposatuko diegu (galderaren erantzuna; testuaren tesia, alegia).

OHARRA

Prozesu honetan guztian taldez talde ibiltzea komeni da, testuak irakurri eta lana bideratzeko. Ez ahaztu oraindik artikuluko monografikoak idazteko autonomia nahikorik ez dutela eta gure laguntza behar dutela. **Ataza honen aurretik zein ondoren egokiro txerta dezakezu 'Testuaren sukaldean' material osagarria.**

Feedbacka (10')

- Lanak hormetan eskegi ditzatela. Ikasleek irakurri, eta gehien gustatu zaienari emango diote botoa. Botorik gehien eskuratzen duena izango da lehiaketarako hautatua.

Atazaostea: Menua hautatu (15')

- Liburuan dituzte Agorregi jatetxearen kartatik ateratako hainbat plateren izenak (www.geocities.com/agorregi). Izenak bi ataletan daude banatuta eta nahasirik.

OHARRA

Ez du aparteko garrantzirik asmatzen duten edo ez. Izan ere, zergatik ez dute beraiek "plater" berri bat asmatuko? Dena den, kontuan izan zenbait izen-konbinazio okerrak ere izan daitezkeela gramatikaren aldetik. Horri, noski, erreparatu. Edonola ere, hauxe da erantzun zuzena.

Ondo hasteko...

Pikillo piperrak Antxoen entsalada	baratxuri eta oliba-olioarekin prestatuak hegaluze-mendrezka eta tomate konfitatuarekin
Foie-gras konfitatua hotzean jateko prest,	tipuleta-mermeladaz eta ardo beltz murrizpenaz lagundua
Barazkien salteatua	arrautz eskalfatua, Idiazabalgo gazta- apurrak eta perretxikuekin

Harrapatu berri diren arrainak dastatu nahi izanez gero...

Otarraiska erreak Legatza barazkien tostarekin Bakailao-solomo konfitatua Txitxarroa	pasta freskoarekin, tipulin oliotan ekin Iratiko gazta eta perrexil-olioa lagun dituela baratxuri-saltsa krematsua eta pipermorroekin patatak, tipuleta eta bere ohiko frijituarekin
---	---

Kalitatezko haragi edo okela nahiago izanez gero...

Bildots-solomoa Idi-azpizuna Baserriko usakume errea	piper morroekin, ez kai-belarrak eta azalozko pure finaz lagunduta belar saltsa eta perretxikoekin tipulatx glaseatuak eta ozpin baltsamikozko zukuarekin
--	---

Etxean prestatutako postre ezin hobek ere baditugu

Kremazko petit xouak Gazta freskozko tarta Idiazabalgo gazta Txokolatzeko terrina	txokolatzeko beroarekin fruitu gorriekin etxeke irasagarrarekin urren izozki batekin
--	---

- Amaitzeko menu bat hautatuko dute, irabaziz gero, nahiko luketena.

4

Atazaurrea (10')

- Ikasleek liburuan duten taula beteko dute. Bertan jasoko dituzte euskal sukaldaritzari —etorkizunari begira— antzematen dizkioten alderdi sendoak eta ahulak.

EUSKAL SUKALDARITZA ETORKIZUNARI BEGIRA	
ALDERDI SENDOAK	ALDERDI AHULAK

- Zerrenden berri emango diete ikaskideei.

Ataza: Iritzia eman, irratian egindako galdera bati erantzunda (40')

- Ikasleek Karlos Argiñanori egindako elkarrizketa bitatik ateratako hainbat pasarte irakurriko dituzte ([6. eranskina](#)). Irakurri, eta bereizi bertatik irizpide gehiago, atazaurrean egindako taula osatzeko.

OHARRA

Zenbait irizpide Karlosen hitzetatik zuzenean atera ahal izango dituzte; beste batzuk, zeharka. Proposatu ikasleei "lerroartean" irakurtzeko, eta, noski, Karlos Argiñanorekin ados ez badaude, ez ditzatela zerrendara eraman berak esan edota iradokitakoak.

- Ondoren, Karlosen Argiñanoren txantxa egiten duen aktore bat ikusiko dugu esketx batean ([5. bideo-pasarte](#)). Ikusi ahala, ikasleek bertan jaso ditzatela etorkizunean espero diren aldaketak.
- Bideoa ikusi ostean, ikasleek "fussion" mugimenduaren on-gaitzez eztabaidatuko dute.
- Amaitzeko, esan ikasleei irratitik honako galdera honekin etorri zaizkigula: Euskal sukaldaritzak eutsi behar al dio bere nortasunari? Entzuleoi gonbita egin digute, deitu eta geure iritzia emateko.

Presta dezatela galdera horri irratian emango lioketen erantzuna. Kontuan har dezatela denbora laburra dutela. Beraz, ongi neur dezatela esan beharrekoa. Grabatu azalpenok.

Feedbacka (15')

- Grabazioak entzun. Talde txikitik, entzundakoaren inguruko laburpena presatuko dute eta.
- Laburpen horren berri emango dute talde osoaren aurrean.

3. Material osagarriak

A. ATAZA: GURE ELKARTEAK

(135')

- **Helburu orokorrak**
- Elkarte gastronomikoak zertan diren azaltzea eta izan beharko lituzketen ezaugarrien gainean iritzia ematea
- **Helburu zehatzak**
- Jendeak harreman sozialak non egiten dituen azaltzea eta toki ezberdinak alderatzea
- Elkarte gastronomikoetan eman ohi den harreman-ereduaren ezaugarriak zein diren azaltzea
- Eztabaidatzea zein baldintza bete beharko lituzkeen denon gustuko elkarte batek
- **Zertan den**
- Azaldu nora joaten den jendea gizarte-bizitza egitera, nolako jendea den, zer egiten duten...
- Bideo-pasarte bat ikusi, eta zerrendatu hainbat tokitan ohikoak ez diren jokabideak
- Elkarte batean egindako ospakizun baten irudiak ikusi, eta elkarteak dituen berezitasunak identifikatu
- Elkarte gastronomikoetan ematen ari diren aldaketei buruzko iritzia eman
- Elkarte eratzeko deialdi bat irakurri, eta antzeko bat egin

PROZEDURA:

①

Atazaurrea (15')

- Taldean jarrita, liburuan zerrendatutako tokietan jendeak nola egiten dituen harremanak izango dute hizketa-gai, nolakoak izaten diren harreman horiek eta zein diren gune bakoitzaren berezitasunak.
 - tabernan
 - parke eta plazetan
 - gimnasioan
 - kultur elkarte gastronomikoetan
 - jaialdi eta kontzertuetan
 - euskaltegian
 - kultur etxean
 - kirol-elkartean.
- Halaber, zein gustatzen zaizkien gehien harremanetarako eta zergatik adieraziko dute.

Ataza: Iragarki bat ikusi, eta antzeko bat asmatu (40')

- Ikasleek [6. bideo-pasarte](#) ikusi, eta bertan irudikatzen den tokiaren giroari erreparatu behar diote. Gure artean arrotz samar izango liratekeen gauzak zerrendatuko dituzte.

Zuzenketa-orria

(oharra: honako hauek aukerako erantzunetako batzuk besterik ez dira)

Oso dekorazio klasikoa
Janzkera serioa
Bataz besteko adina
Isiltasuna
Gizonezkoak soilik

Eserlekuak
Zerbitzariak
Ontziteria
Harremanik eza

- Jarraian, osorik ikusiko dute iragarkia ([7. bideo-pasartea](#)). Ikasleek adieraziko dute ea jokabide hori imajinatzen duten hemengo sagardotegi batean. Ondoren, liburuan dauden galderen gainean jardungo dute.
- Iragarkiaz hitz egin ondoren, alderantzizko egoera irudikatuko dute. Horrela, bada, esango diegu pentsatzeko BBCk antzeko kanpaina bat egin nahi duela; beraiek iragarkia nolako litzatekeen pentsatu beharko dute.
- Lehenbizi, [8. bideo-pasartean](#) ikusten diren gauzetatik britainiarrei zein gerta dakizkiekeen harrigarri zerrendatu behar dituzte. Klub britainiarrei buruz egin berri duten zerrenda erreferentzia gisa har dezakete.

Zuzenketa-orria

(oharra: honako hauek aukerako erantzunetako batzuk besterik ez dira)

Mahai-zapia buruan jarrita
Zarata eta musika
janzkera informala
gazteak eta helduak batera
...

- Ondoren, taldeetan eztabaidatuko dute nolako eszena irudikatuko luketen "Euskal Herrira iritsi gara" leloa aldarrikatzeko balioko lukeen iragarkian.
- Txandaka, nork bere iragarkiaren aurkezpena egingo dute. Azalpena planifikatu, eta proposamenak ondo arrazoitzen saiatzeko esan.

Feedbacka (5')

- Azalpenak bukatutakoan, talde bakoitzak besteen ideietatik hoberenak zein iruditu zaizkien esango dute.

②

Atazaurrea (15')

- Ikasleek ezagutzen dituzten elkarten ezaugarriak azalduko dituzte; Euskal Herrian elkarte asko daude eta denak ez dira berdinak. Azaldu nolakoak diren zeuek ezagutzen dituzuenak eta gustuko dituzuen edo ez.
- Halaber, gure elkarteetatik gustatzen zaizkien gauzak zerrendatuko dituzte.

Ataza: Euskal Herriko elkarte gastronomikoetako ezaugarriak zerrendatu, eta egin beharreko aldaketei buruz eztabaidatu (20')

- Ikasleek [9. bideo-pasartea](#) ikusiko dute, eta bertan azaltzen diren harreman bitxietako batzuei erreparatuko diete.

- o Banketxeko zuzendariak eta langile xeheak zeregin eta ardura berbera dute
- o Gazteak eta helduak elkarrekin
- o Apaiza, ertzaina... beste herrikideekin festa ospatzen
- o Bazkide ez direnek ere sarbidea izatea
- o Beste testuinguru batean aintzat hartuko ez liratekeen txantxak bota ahal izatea
- o ...

- Ondoren, taldeetan jarrita, elkarteetan azken urteotan eman diren aldaketak eta egin beharko liratekeen aldaketa berriak zerrendatuko dituzte.
- **bideo-pasarte**a ikusiko dute (betiko elkarte gastronomiko bati buruz), eta jendeak azaltzen dituen kezkei eta azpimarratzen dituen alde onei erreparatuko diete. Ikasleek berek egindako zerrenda osatuko dute.

KEZKAK	ALDE ONAK

Feedbacka (10')

- Zerrendak aurkeztuko dituzte txandaka.
- Gairik eztabaidagarrienak zein diren zehaztuko dute. Horien inguruan iritzia emateko aukera eskainiko diegu.

3

Atazaurrea (5')

- Arbelean idatziko ditugu lau elkarteren izenak:
 - Emazteki Elkarte
 - Bio Elkarte
 - Ciber Elkarte Park
 - Lege Zaharra Elkarte
- Azal dezatela nolako elkarte imajinatzen duten izenak ikusita.

Ataza (20')

- Lau talde egingo ditugu. Talde bakoitzean elkarteetako baten egitasmoa garatuko dute: nolako izango den elkarte, zein izango diren bere helburuak, nor izan daitekeen bazkide...
- Auzokideen batzarrean txandaka aurkeztuko dute egitasmoa.

Feedbacka (5')

- Ikasleek adieraziko dute zein izan daitekeen taldeko guztien gustuko elkarte-eredua.

B. ATAZA: ZAIN DEZAGUN JANA

(185')

Helburu orokorrak

- Euskal Herriko sukaldaritzaren mota ezberdinen ezaugarrien berri ematea
- Euskal sukaldaritzaren orainaz eta geroaz dugun ikuspuntua azaltzea

Helburu zehatzak

- Hainbat pertsonaren azalpenak entzun eta beren iritziak azaltzeko erabiltzen duten estrategia aztertzea
- Programa bateko ikusle batzuen galderak ulertu eta gaiari buruz duten kezka identifikatzea
- Mahai-inguru batean solaskideetako batek egiten dituen azalpenak ulertuta, erabakitzea zein izan ote den kasu bakoitzean hizpide hartutako aztergaia
- Gai bati buruz eztabaidatu ondoren, taldearen iritzia zehatz azaltzea
- Gai bati buruz iritzia zehatz azaltzea eta horren defentsa egitea
- Ikaskideen eta adituen iritziak erabilia, artikuluko batean ezabatutako pasarteak osatzea

Zertan den

Ataza honetan, ikasleei hainbat jarduera proposatuko zaizkie, hiztunek zenbait gaiari buruz emandako iritziak eztabaidatzeko.

Lehenbizi, inkesta baten inguruan hainbat adituk egindako iruzkinak eta oharra ulertu eta alderatu beharko dituzte; gero, zenbait pertsonak azaldutako kritikez jardungo dute eta, azkenik, gai gatazkatsu baten gainean pertsona batek emandako iritziak izango dituzte hizketa-gai.

Horrekin, ikasleek trebatzeko aukera izango dute, bai gai kezkarriei buruzko iritzi-azalpenak ulertzen, bai ulertutakoaren gainean bere ikuspegia ematen.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- Ikasleek, taldeka jarrita, liburuan dituzten galderei buruz jardungo dute.
 - Nola jokatzeko duzue zuek?
 - Aukera onak al dira saltokietako eskaintza horiek?
 - Prezio baxuek ez al dute ezer ezkututzen?
- Gelako beste kideei emango diete hitz egindakoaren berri.

Ataza: Iruzkin bat egin ahoz janaritan gastatzen dugunari buruzko inkesta baten emaitzaren gainean (20')

- Atera berri den estatistika batek zera dio: "Gero eta gutxiago gastatzen dugu jan-kontuetan eta gehiago aisialdian. Diru-sarreraren %10 eta %30, hurrenez hurren".
- Taldeka, inkesta bateko bost ondorio irakurriko dituzte, eta horien artean zein den zuzenena erabakiko dute.

- a) Jatetik kentzen dugula denbora-pasarako.
- b) Jatekoak gero eta merkeagoak dira; orain, diru-kopuru berberaren truke gehiago duzu.
- c) Kontua ez da hori; kontua hau da: gero eta gehiago gastatzen dugu aisialdian.
- d) Aisialdiko jarduerak gero eta garestiagoak dira; bueltatxo bat eman, pare bat trago hartu eta 30 euro joan zaizkizu.
- e) Askotan etetik kanpo jaten dugu; diru hori aisialdiko gastuen ataletik kendu eta jatekoen atalean batuta, beste zenbaki batzuk aterako lirateke.

- Beren ikuspegiaren berri emateko, liburuan duten txantiloia beteko dute.
 - Iritzia
 - Arrazoiak
 - Ondorioak
- Taldeak berrantolatuko ditugu, eta talde ezberdinetan jardun duten ikasleak elkartuko ditugu.
- Elkarri emango diote beren ikuspuntuaren berri, gidoiari jarraituta.

Feedbacka (5')

- Azalpenak bukatu, eta, behar denean, nork bere iritzia argitzeko eskatuko diote elkarri.

Ataza: Hainbat pertsonaren iruzkinak ulertu, eta testu bat osatu (40')

- Ikasleek [11. bideo-pasarteko](#) hiru solaskideren azalpenak entzungo dituzte. Entzun ahala liburuko taula osatuko dute.

SOLASKIDEA	IRITZIA	ARRAZOIAK	ONDORIOAK
Agustin Unzurrunzaga			
Juanjo (harakina)			
Joxe Mari Agirre			

- Hartutako oharrak alderatu egingo dituzte, eta taldean azalduko dute zeinekin datozen bat eta zeinekin ez.
- Ondoren, taldean, liburuan dagoen testua osatuko dute. Bertara eramango dituzte, besteak beste, bideo-pasartean entzundako iritziak. Izan ere, herriko komunikabide batera gutun bat igortzea erabaki duzue; eskaintzen zaizkien pasarteez gida daitezela.

Aurreko batean hedabideetan ikerketa estatistiko baten emaitzen berri eman zuten. Eta, ziotenaren arabera, -----

Ezin da zalantzan jarri azken urteotan -----

Modu berean, ezaguna da denok -----

Baina horrek ez du esan nahi -----

Beharbada, geure kontsumo-jokabideen gainean gogoeta egin beharko dugu, baina, hausnarketa hori emankorra izan dadin, azterketa serioetatik abiatu beharko dugu eta ez "sasi-egia" estatistikoetatik.


Feedbacka (15')

- Trukatu testuak. Aztertu nolako argumentuak txertatu dituzten ikaskideek testuaren atal bakoitzean.
- Alderatu batzuek eta besteek egindako hautuak. Arrazoitu.

2

Atazaurrea (10')

- Ikasleek jateko kontuetan zerk sortzen dien kezka jasoko dute beren liburuan, baita zein den beren jokabidea ere.



Ataza: Zenbait pertsonaren kezka entzun, eta diotenaren inguruan nor bere iritzia azaldu (15')

- Ikasleek [12. bideo-pasartean](#) gai honi buruz ETBko GAU:ON programan egindako eztabaida batean hainbat ikus-entzulek azaldutako kezka entzungo dituzte. Entzun, egindako galderak ulertu eta liburuan duten taula osatuko dute.

Zuzenketa-orria:

NOR	KEZKA	IRADOKIZUNA
Juanjo	Zenbat okel sartzen da hemen benetako kontrolik gabe?	Kanpokoei kontrol berberak egiteko edota kontsumitzaileei informazioa emateko
Euge	Nola jakin dezake haziak edota landatzen dituen barazkiak sorburuan nola izan diren tratatuak?	
Begoña	Labelekoa ez den guztia pozoitua dago?	Kontrolatu besteak ere
Pello	Nola lehiatu zenbait saltokik ezartzen dituzten prezio baxuekin?	Kalitatea ikuskatu

Feedbacka (10')

- Oharrak alderatuko dituzte. Behar izanez gero, berriro ikus dezatela bideo-pasartea.
- Ondoren, kezka horiekin bat egiten duten edo ez adieraziko dute, eta, oro har, zer erantzuten ahal zaien pertsona horiei.

3

Atazaurrea (10')

- Ikasleak bi taldetan banatuko dira. Talde batean hizpide jarritako galderari baieztako erantzuna emateko erabil litezkeen arrazoiak zerrendatuko dituzte. Bestean, galderari ezezko erantzuna emateko erabil litezkeenak.

Geuk galdera horri helduko diogu, eta geure arteko eztabaida moduko bat egingo dugu. Horretarako **gurpil zoroaren** teknikaz baliatuko gara.

FIDA AL GAITEZKE JATEN DUGUNAREKIN?	
Bai; izan ere,...	Ez; izan ere,...

Ataza: Gai gatazkatsu bati buruzko iritzia zehaztasunez azaldu (40')

- Binaka jarriko dira, eta elkarri emango diote eratu duten zerrendaren berri.
- Ondoren, emandako arrazoen artean bat hautatuko dute, eta liburuan duten fitxaren *lehen leerroan* jasoko dute, esaldi gisa formulatuta.
- Fitxa beste bikote bati pasako diote, eta horiek argumentu horren aldeko arrazoiak eta adibideak erantsiko dituzte fitxaren *bigarren leerroan*.
- Hurrengo bikoteak argumentuaren eta emandako arrazoen ahuleziak jasoko ditu *hirugarren leerroan*.
- Bikote bakoitzak bere fitxa berreskuratuko du, eta ondorioak aterako ditu.

<u>IKASLEAREN LIBURUKO FITXA</u>	
IRITZIA	
ARRAZOIAK	
○ ○ ○ ○	
AHULEZIAK	
ONDORIOAK	

- Ondoren, [13. bideo-pasartean](#) Jakoba Rekondoren bi azalpen entzungo dituzte mahai-inguru batean hizketan. Ikasleek iritzia, arrazoiak eta ondorioak bereizi behar dituzte.

Zuzenketa-orria:

	LEHEN AZALPENA	BIGAREN AZALPENA
IRITZIA	Garrantzitsua da bidea jorratzen hastea. Hitz gakoa hauxe da: jasangarritasuna. Lur baten zati bat gara, eta zalantzan jartzen ari gara lur horren iraupena.	Informazioa behar da: nola ekoiztu den, nongoa den, transgenikoa edo manipulatu den...
ARRAZOIAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Eraginkorrena hurbilekotik hastea da ○ Jendeak ez ditu hainbat produktu egoera naturalean kontsumitzen ○ %10 baino ez dugu gastatzen jaten ○ Pozoizten ari gara 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Informazio gehiago dakarten produktuak beti dira kalitate hobekoak. ○ Herri txikiak mantentzeko modu bat da ○ Nekazariei beren lanak bidezko prezioan ordaintzea errazten du ○ Hustuta dauden baserriak betetzeko
ONDORIOAK	Garrantzia eman behar zaio kalitateari eta nekazaritza biologikoa bultzatu behar da	Jendeak informazio zehatza baldin badu, bere jokabidea aldatu egingo du.

- Txandaka, bakoitzak hartu bere fitxa, eta, Jakoba Rekondoren antzera, iritzia azal dezatela ahoz.

OHARRA

Ikasleek azalpena egiten duten bitartean, horrelako fitxa batean hartu oharrak. Ondoren, ikasle bakoitzari azaldu zertan ikusi duzun ondoen eta zertan okerrago; hots, dituen alderdi sendoak eta sendotu beharrekoak.

Feedbacka (10')

- Azalpenak entzun ahala ikaskideek oharrak hartuko dituzte, gero eztabaidatzeko esandakoaren gainean.
- Ondoren, eztabaidari ekin, egindako iruzkinik adierazgarri eta kezkarrienez jardun; baita zalantzazkoak iruditu zaizkien kontuen gainean ere.

C. ATAZA: TESTUAREN SUKALDEAN

(80')

Helburu orokorra

- Sukaldaritza- eta idazketa-lanak alderatuta, artikulua idazteko "errezeta" bat egitea

Helburu zehatzak

- Norberak sukaldaritzan duen esperientzia zehatz azaltzea
- Artikulu bat irakurri, eta argumentu nagusiak eraztea
- Hainbat iturri kontsultatuta, artikulua idazteko gomendio-zerrenda bat egitea

Zertan den

Ataza honetan, ikasleek sukaldaritza- eta idazkuntza-lanak alderatzen dituen testu bat irakurriko dute. Horrela, idazkuntzak sortzen dituen kezkak eta eskatzen dituen abileziak bereizi ahal izango dituzte; baita horretaz hitz egin ere.

Lehen atalean, ikasleei honako hau eskatuko diegu: alde batetik, azaltzeko nolako abileziak dituzten sukaldean eta, beste alde batetik, prestatzeko sukaldari-gaietarako aholku-zerrenda bat. Ondoren, testuak idazteko errezeta bat egingo dute, eta, azkenik, HABEren ikaslearen gunera bidaliko ditugu, gai honetaz dauden materialak eta iradokizunak aztertzerako.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (5')

- Ikasleei sukaldari-moduan dituzten hiru bertute azaltzeko eskatuko diegu.

Ataza: Sukaldari izateko oinarritzko gomendioen zerrenda egin (15')

- Ikasleei galdetuko diegu ea zergatik den horren arrakastatsua gaur egun sukaldaritza.
- Ondoren, sukaldaritzaren "tiradizoa" sentitu duen eskarmenturik gabeko batentzako gomendio-zerrenda egin dezatela proposatuko diegu.

Feedbacka (5')

- Zerrendak aurkeztuko dituzte, eta gomendiorik hoberekin zerrenda bateratua egingo dute.

2

Atazaurrea (10')

- Hizkuntzaren Opil Goxoa artikulua irakurriko dute: "Denok sukaldari" testua ([7. eranskina](#)).
- Ondoren, sukaldeko lanaren eta idazketa lanaren arteko antzekotasunak zerrendatuko dituzte.

Ataza: Artikulua irakurri, eta artikulua idazteko errezeta bat proposatu (30')

- Artikuluaren 2. eta 3. pasarteak irakurriko dituzte: "Testuaren sukaldean" ([8. eranskina](#)). Bertan egiten diren konparazioak liburuan duten taulan jasoko dituzte.
- Ondoren, sukaldaritza- eta idazketa-lanen arteko aldeak zerrendatuko dituzte. Taldeko kideei emango diete zerrendaren berri.
- Amaitzeko, liburuan duten txantiloian, artikulua idazteko errezeta bat egingo dute. Nahi izanez gero, HABE aldizkari elektronikoaren ikaslearen txokora jo dezakete; bertan, hainbat aholku eta adibide daude.

Feedbacka (15')

- Artikuluaren 4. atala irakurriko dute: "Eta errezeta txiki bat" ([9. eranskina](#)). Bertan, errezeta bat egiten du idazleak.
- Beren proposamenaren eta artikulugileak egin duenaren arteko aldeak identifikatuko dituzte. Horien berri emango diote taldeari.

4. Eranskinak

I. eranskina

Ikasleen autoebaluazio-orria

1. Hemen dituzu unitate honetan landutako gai nagusiak. Ea zenbat hitz gogoratzen dituzun.

- **Otorduak:** gosaria, ...
- **Urtaroak:** udaberria, ...
- **Jan-edanak:** odolkiak, ...
- **Ekitaldi jendetsuak:** garraioa, ...
- **Jatetxe-motak:** ...
- **Sukaldaritza:** estimatua, ...
- **Kontsumoa:** lehentasunak, ...

2. Gai honetan geure jokabide sozialen gainean jardun dugu bereziki. Aipatu euskaldunon ezaugarri nabarmenenak.

3. Unitate honetan, besteak beste, iritziak azaltzen aritu gara. Beste gela bateko ikasle batek galdetu dizu ea zer iruditu zaizun unitate hau. Idatzi zure iritzi orokorra.

4. Unitate honetan, hainbat testu-mota entzun eta irakurri dituzu. Zer ikasi duzu horien bidez? Zertan lagundu dizute aurrera egiten?

5. Unitate honetan, azalpen eta idazlan batzuk egin dituzu. Zein izan da zeuretzat interesgarriena? Zergatik?

6. Jarraian duzu unitate honetan landu ditugun hainbat trebezia. Puntuak eman zeure buruari (1etik 10era). Alboan arrazoitu puntuazioa.

- o Deskribatu jendeak nolako portaerak eta harremanak dituen egoera ezberdinetan
- o Nire iritzia eman gertaera eta arazo ezagunen inguruan
- o Pentsako artikuluen funtsezko informazioa ulertu
- o Iritzi-artikuluak irakurri, eta idazlearen ikuspegia identifikatu
- o Solasaldietan esku hartzen duten pertsonen azalpenak ulertu patxadaz ari direnean
- o Besteei entzundakoak eta irakurritako gauzak erabili artikulua egiteko
- o Besteen aurrean azpimarratu garrantzitsuak iruditzen zaizkidan gauzak
- o Ikaskideekin eztabaidatu geure intereseko gai buruz

Txikitako meriendak

- Irratia.- Kaixo, Esther.
 Esther.- Kaixo, arratsalde on.
 Irratia.- Eta, orain, guk asko maite dugun gai bat, jan-kontuetaz arituko garelako.
 Esther.- Bai, merienda-garaia ere iritsi da, eta horretaz hitz egingo dugu gaur, hain xuxen ere. Zein zen zure txikitako merienda maiteena?
 Irratia.- Bai, badakigu gaur ere ahal duzunean gustura asko meriendatzen duzula, baina ez da gauza bera, ez.
 Esther.- Ez.
 Irratia.- Hauxe duzu gaurko galdera: zein zen zure txikitako merienda maiteena?
- Esther.- Edurne.
 Edurne.- Bai.
 Esther.- Kaixo, arratsalde on.
 Edurne.- Kaixo, arratsalde on.
 Esther.- Zure txikitako merienda maiteena zein zen?
 Edurne.- Maiteena? Askok.
 Irratia.- Askok?
 Edurne.- Bai, baina bat, behintzat, ogiaren gainean mantekila, azukre pixka bat bota, orduan etxean egiten zen, mantekila, eta...
 Irratia.- Ogia, ez?
 Edurne.- E? Ogia ere bai.
 Irratia.- Baita ere, biak; bai goxoa.
 Esther.- Beraz, etxean egindako ogia eta etxean egindako mantekila.
 Edurne.- Bai, eta gero gazta ere bai, asko gustatzen zitzaidan, eta txokolatea ia egunero edukitzen genuen hura ere.
 Irratia.- Gaur egun ere jaten al duzu meriendatzeko hori?
 Edurne.- Orain ja ez.
 Irratia.- Ez duzu egiten.
 Edurne.- Orduan mizkinagoa nintzen, eta badakizu, ba...
 Irratia.- Garaiak aldatu egiten dira.
 Esther.- Neska handia egiteko, meriendatu egin behar zen.
 Edurne.- Orain gehiegi jaten dut, orain aldrebes, eta gero garaian garaikoa ere bai: sagar erreak ere bai, beti, udazkena baldin bazen, sagarrak ere askotan izaten ziren.
 Esther.- Tokatzen ziren.
 Edurne.- Bai.
 Irratia.- Oso ondo, Edurne.
 Edurne.- Eta intxaurrek eta denetik.
 Irratia.- Denetik, denetarik.
 Esther.- Ez zinen, orduan, hain mizkina? Hori guztiak gustuko bazenituen...
 Edurne.- Baina, gero, jateko, nintzen...
 Irratia.- Jateko, gero, txarra.
 Edurne.- Bai, ba, nire lagun batzuek esaten didatena, inbidi ederrak pasatzen omen zuten, eskolara joaten omen nintzen bokadilo handiarekin...
 Irratia.- Zu ikusita.
 Edurne.- Beti bokadiloa nuela, beti jan gabe edukitzen omen nuen, eta haiek ondotik inbidietan.
 Esther.- Haiek jango bai, baina...
- Irratia.- Feli.
 Feli.- Hola, arratsalde on.
 Irratia.- Baita zuri ere.
 Esther.- Kaixo.

Irratia.- Zein zen zure merienda maiteena, Feli?
Feli.- Nire merienda maiteena txokolatea eta ogia, baita aitak mendian, Aralarren egiten zuen gazta, artzain genuen eta. Egiten zuen gazta oso ona, eta, jeneralean, etxean egiten genuen ogia.
Esther .- Dena primerakoa.
Feli.- Ekonomikan; oso ona, oso ona, ogia oso ona ateratzen zitzaigun.
Irratia.- Ogia etxean egindakoa, gazta aitak egindakoa, eta zer esan duzu...
Feli.- Txokolatea.
Irratia.- A, txokolatea!
Feli.- Aldatzeko, txokolatea.
Irratia.- Nondik ekartzen zenuten txokolatea?
Feli.- Ba, amak Papeleran egiten zuen lana, eta orduan, ba, kooperatiba bezala edo... Bastante ematen zioten, eta guk senide asko ginen, zortzi ginen.
Irratia.- Eta hortxe ibiltzen zineten borroketan.
Feli.- Bastante tokatzen zitzaion senide bakoitzeko, seme-alaba bakoitzeko, ez dakit zenbat ematen zieten eta...
Esther.- Oso ondo, Feli. Eskerrik asko.
Feli.- Ez horregatik.
Irratia.- Zorte on.

Irratia.- Arratsalde on!
Arantxa.- Kaixo.
Esther.- Kaixo, zein zen zure merienda maiteena?
Arantxa.- Aurreko horiek esan dute, eta, gutxi gorabehera, ba, horixe, amak horixe edukitzen zuen, leihoan jarri, eta esne hozten, eta niri hori gustatzen zitzaidan, gainean egiten zen nata lodi hura.
Esther.- Nata.
Irratia.- Esne-gaina.
Esther.- Ez dut esan, oraindik; zain geunden ea bakarren batek esaten zuen nataren kontu hori.
Arantxa.- Bai, bai, esne-nata hori, bueno!, eta gure amak sekulako kabreoak harrapatzen zituen, gajoak.
Irratia.- Eta zer botatzen zenion gaineratik, Arantxa?
Arantxa.- Azukre pixka bat txokolate pixka batekin
Esther.- Azukre pixka bat, gozo-gozoa, lehendik nata eta gaineratik azukrea.
Arantxa.- Baina oso gozo zalea naiz, eta txokolate-ontza batekin.
Irratia.- Ama.
Arantxa.- Primerako merienda izaten zen.
Irratia.- Ondo meriendatutakoa, behintzat.
Arantxa.- Zaplastako ederrak noizik behin jasotzen nituen, nata guztiak kentzen niolako. Klaro, gero, hasten zen bera bizkotxo edo zer edo zer egin behar zuela, eta....
Irratia.- Akabo.
Arantxa .- Nata auzoan.
Esther.- Jakina, amak ere beharko zuen nata hori sukaldean aritzeko, eta, batez ere, bizkotxoak eta egiteko.
Arantxa.- Bai, eta gu ere senide mordo bat baginen eta.
Irratia.- Asko zineten.
Arantxa.- Hamar: bost eta bost.
Irratia.- Eta guztiok nataren atzetik.
Arantxa.- Ez, Jaingoikoari esker.
Irratia.- Eskerrak, orduan.
Arantxa.- Ez, gozozalea ni naiz, amorratua; gainerakoak beste zerbaite jaten zuten, baina ni nata gozo-gozoa eta txokolate-ontza.
Irratia.- Eta beti ezkutuan ia-ia.
Arantxa.- Hori da, eta armairu-zokotara joan, eta txokolate-tableta harrapatu, eta...
Irratia.- Beti ezkututzen zuten amek, baina beti bilatzen genuen, e!
Arantxa.- Bai, eta beti harrapatzen zidaten ahizpak, nik paleta handi samarrak ditut, eta txokolateari koska egin, eta paleta-marka uzten nuen, eta bazekiten beti zein izaten zen.
Irratia.- Ni ez naiz izan, eta dena.

Arantxa .- Ez, ez, segituan harrapatzen zidaten.

Esther.- Oso ondo, Arantxa; eta eskerrik asko, zure natazko bokadilo gozo horiek aipatzeagatik.

Arantxa.- Oraintxe ere jango nuke.

Irratia.- Baita nik ere, baita nik ere, Arantxa.

Esther.- Orain arte, beraz, ez dugu lehen arestian aipatu dugun bollycaoaren garaiko inor izan, ez?

Orain arte gurean esango dugu beti betiko merienda zale direnak hots egin dutela.

Irratia.- Bai.

Esther.- Edurne, Feli, Arantxak eta, orain, Brigida. Arratsalde on, Brigida.

Irratia.- Arratsalde on, zer moduz?

Brigida.- Bueno, nik... Zer moduz? Ongi.

Irratia.- Gaur, meriendatu al duzu?

Brigida.- Ongi, ni hasi naiz zer gustatzen zitzaidan gehiena eta gutxiena zer jaten genuen.

Irratia.- Esan.

Brigida.- Txorizoa, txorizo de Pamplona da, orain ere izaten da, baina oso gustukoa izaten nuen txorizo hori. Baina, klaro, gutxitan erosten zen, eta beti hori jan nahian, oso gustukoa, baina esne-gainak eta horiek askotan jaten genuen meriendatzeko eta, batez ere.

Irratia.- Hori ugari zegoelako, ezta?

Brigida.- Bai, noski.

Irratia.- Etxekoa zelako.

Brigid.- Bai, etxeko gauza baitzen, eta ez zegoen erosi beharrik, eta beste gauza askotan izaten genuena da, ezta eta ezta gainean intxaurrak eta urrak jarrita, huraxe.

Irratia.- Uhmhhh, udazkeneko merienda peto-petoa.

Brigida - Bai, urte guztiko ezta izaten genuen, eta intxaurrak eta urrak ere bai.

Esther.- Hori ere etxean egindakoa.

Brigida.- Etxekoa.

Irratia.- Eskerrik asko.

Brigida .- Ezerengatik.

Irratia.- Adio.

Brigida.- Adio.

Testigantzak

EUNATE URRUTIA
(17 urte. Mundaka)

"Normalean, urtero etorri ohi naiz Gernikako azokara"

Urriko azken astelehenean urtero etorri ohi naiz Gernikara. Normalean bai, ez naizenean etorri ezin izan dudalako izan da. Batzuetan, egun osoa igarotzen dut hemen, Gernikan; goizean azoka ikusi, eta arratsaldean parrandan gelditzen naiz. Etorri izan naiz bueltatxo bat ematera bakarrik ere. Egun honetan dena gustatzen zait, baina zerbait aukeratu behar izanez gero, animaliak, behiak eta pottokak aukeratuko nituzke batez ere. Horrez gain, gaueko parranda ere primerakoa izaten da Gernikan, gazte jendearentzat.

JON ZORROZA
(35 urte. Bilbo)

"Duda barik, nahiago dut goizeko giroa"

Urriko azken astelehenean jendea biltzeko egun garrantzitsua da, parrandarako primerako lekua ere bai. Ibilbide historikoa daukan eguna ere bai. Gehienetan etortzen naiz; ahal dudanean, behintzat, ez dut hutsik egiten. Bertoko produktuen stand-ak ikustea atsegin dut. Produktu eta ortuari ezin hobekak egoten dira salgai azokan. Azoka ikustera etortzen naiz, eta, batzuetan, arratsalde eta iluntzean ere bertan gelditzen naiz. Egunaren arabera izaten da hori, sarritan gelditu izan naiz goizaldera arte Gernikan, baina, hala ere, duda barik nahiago dut goizeko giroa.

ROSA NEGRETE
(75 urte. Bilbo)

"Giro aparta egoten da; egun handia da"

Bizkaian egiten den edozein azoka legez, Gernikan egun zeharo garrantzitsua da urriko azken astelehena, azoka dela eta. Ni neu, Gernikako azokara ez ezik, ahal dudan feriatzuetara joaten naiz. Urtero ez naiz etortzen Gernikara. Zoritxarrez, behin bakarrik egon naiz, baina giro aparta egoten dela iruditzen zait. Egun handia da urriko azken astelehena, zalantzarik gabe. Gernikako Azokan gehien gustatzen zaizkidan gauzen artean zaila da zerbait aukeratzea. Azoka bera, zalduak, pottokak, idiak... oso gustuko ditut. Hain dira gauza asko! Nik primeran igarotzen dut egun osoa horrelakoetan; hainbat produktu dastatu ohi ditut, eta bapo-bapo jan ondoren, etxera bueltatzen gara iluntze aldean, Gernikako Azokan egun osoa igaro eta ondo pasatu ostean.

MARIA LUISA AURREKOETXEA
(70 urte. Bilbo)

"Zerbait aukeratzekotan abereak aukeratuko nituzke"

Egun handia da, bai, urriko azken astelehena; jaiegun itzela. Feriatzuetan oso garrantzitsua da, eta etortzea gustatzen zait. Ni baserrian hazitakoa naiz, eta momentu oso ederrak gogorarazten dizkirate honelako azokek. Azken urteetan etortzeko ohitura dut denbora libre dudalako, baina lehen ezin nuen, lana neukan eta. Nahi bai, baina ezin, horixe arazoa. Urriko Azken Astelehenetik zerbait aukeratu behar izango banu, abereak aukeratuko nituzke, zalantza barik. Beti eduki izan ditugu etxean animaliak, eta orain ez ditugunez, falta sumatzen dut. Hala ere, gaztaren erakusketak ere oso interesgarriak dira azoka honetan

JUAN BEASKOETXEA MUGIRA
(78 urte. Nabarniz)

"Tradizio ugari bat egiten dute Gernikako azokan "

Urtero-urtero hemen izaten naiz, Gernikako Azokan. Jaiegun handia da niretzako. Gure plazako ortuariak, idi-probek, gauza askok eta tradizio ugari bat egiten dute Gernikako Azokan. Nabarniztarra naizen arren, Gernika bizi naiz, eta Urriko Azken Astelehena honetara etortzeaz aparte, eguna bera ere antolatzen ibiltzen naiz. Azken astelehena arras garrantzitsua bada ere, niretzat urriko lehen astelehena egun berezi-berezia da. Ganadu kontua menperatzen dut, txikitatik egon naiz giro horretan sartuta, eta izugarri gozatzen dut egun horretan. Ni betidanik egon naiz animalia artean, alor hori benetan interesgarria da niretzat. Gernikako Azoka goiz-goizean ikusi eta gero, idi-probak antolatzen joan behar izaten dut, goizeko hamarretarako probalekuan egon behar izaten dut. Ezin dut parrandarik egin, baina gustura egoten naiz, laguntzea merezi du.

Gernikako azokaren kronika

A IKASLEA

OHITURAK LAGUN

Egunotan baserri giroa sumatu ahal da Gernika-Lumon

Urriko azkeneko astelehena iritsi aurretik baserri giroa sumatzen da Gernika-Lumoko edozein bazterretan. Egun batzuk lehenagotik herriko kaleetan saltokiak jartzen hasten dira, eta dena primeran atontzen dute egun handi honetarako. Gauden lekuan gaudela, erraz igarriko dugu baserritarren festa ospatzen ari dela Gernikan. Baina batez ere Juan Kaltzada etorbidean, Industri kalean eta Artekalean aurkituko ditugu eztiak, kontserbak, gazta, ogia txakolina eta beste hainbat produktu. Besterik, astelehenetan ohi legez, merkatu plaza ere egingo da, eta San Juan Ibarra plaza kalez kaleko saltzaileen azoka bihurtuko da.

Goizeko seitarako saltzaileak saltokiak prestatzen hasten dira, zortzietarako kaleek libre egon behar dute eta. Ordubete geroago, Gazteak txistulari taldearen kalejirak txosnen irekiera iragartzen du. Jarraian, baserritarrentzat zozketa nagusia egiten da, eta Lurgintzari Makina Erakusketaren ateak zabalduko dira. Urriko azkeneko asteleheneko azoka ortuari, txakolin eta gaztaren kalitate onarengatik ezaguna da, baina asko eta asko etortzen dira nekazaritzako lan tresna eta ibilgailuen erakusketara ere.

Kalea jendez gainezka

Zurrunbiloa, jendetza kalean gora eta behera. Herriko kaleak jendez betetzen dira. Alde batera eta bestera begira, noizik behin geldionetxo bat egiten dute horren goxoak diruditen sagar horien prezioa galdetzeko. Batzuek otzara erdi beteta dute dagoneko (poltsikoa husten hasita, noski) eta beste askok prezioen gainean galdezka igaro dute goiza.

Kuxkuxero hutsak direnak bai, baina zeregin horretan arituko diren adituak ere ikusiko ditugu. Izan ere, epaimahaia goizeko 09:00etatik 10:30era salgaiak begiratzen ariko da, eta kontu handia izango dute salgaiak bertokoak izan daitezen. Saltzaileen norgehiagoka, eta eguerdian, bertsolarien norgehiagoka. Merkurio Iturriaren ondoan, Lizasok, Egañak eta Lopategik bat egingo dute, eta eurekin batera, hainbat bertsozalek.

Epaimahaiak 13:30ean agerraraziko du bere erabakia. Ortuariak, frutak, loreak, gaztak, txakolinak eta eztiak dira adituek dastatu eta aztertuko dituzten produktuak. Caja Rural Vasca-Ipar Kutxak dirutan banatuko ditu sariak, baina produktuaren eta bere ezaugarrien arabera, diru kopurua desberdina izango da.

Gazta irabazlearen enkantea 14:00etan egingo da. Merkurio Iturrian. Leku askotatik etortzen da jendea, oso ezaguna gehienetan, ekitaldi famatu honetan parte hartzeko. Eskaintzen den dirutza izugarria izan ohi da; iaz, esaterako, gazta erdiagatik 390.000 pezeta ordaindu zituzten.

Eta arratsaldean festak kalean eta tabernetan jarraitzen badu ere, kirolzaleak Malosten edo jai Alai Frontoian elkartzten dira, idi probak eta zesta partidak ikusteko.

B IKASLEA

JENDE ANDANA ETA JAI GIRO APARTA

Azokaz gain, denok gozatzeko jai ederra bilakatu da Urriko Azken Astelehena

Urriko azken astelehena baserritarren eguna izanik, euren produktuak erakutsi eta, batez ere, saltzeko aprobetxatzen dute. Hala ere, urriko egun hau Gernikan zerbait gehiago ere bada. Izan ere, jende askok eta askok, produktuak ikusi eta eroatera joateaz gain, eguna igarotzen baitu lagunekin edo familiarekin parrandatxo txiki edo handiak eginez.

Lehenik eta behin, produktuak salduko dituzte baserritarrak iristen dira Gernikara. Goizean goizetik, 06:00etarako ekiten diote gehienek beren saltokia edo saltokiak -batzuek, dituzten produktuen arabera, bi saltoki izaten baitituzte- prestatzeari, Bittor Agirrek adierazi digunez "Goizeko zortzietarako kaleak libre utzi behar baititugu"

Hala ere, publikoarentzako 09:00etan zabalitzen da Gernikako Azoka. Gero, gaueko 22:00ak arterainoko denbora izango dute saltokiak batzeko. Txosnak ere ordu horretarako batu beharko dituzte.

Hirurehun saltoki eta zazpi txosna

Aurten zazpi txosna daude, eta guztiak kultur taldeek jarri dituzte. Alondegikoa kentzea erabaki dute, autoak bertatik igarotzeko gaizki baitzegoen. Txosna guztiek edaria eta janaria izango dute, baina, ziur aski, gehien salduko dutena Urdaibaiko txakolina eta txorizodun eta solomodun taloak izango dira.

Txakolinen artean badago non aukeratu; Amunategi, Etxerreko, Gorrondona edo Kandi, beste batzuen artean.

Euskal Herri guzitik etorritako baserritarrek ortuariak, fruituak, loreak, gaztak, txakolinak eta eztiak ekartzen dituzte, beste gauza batzuen artean. Eta, nahi izanez gero, aipatutako jaki eta edariak lehiaketa batean parte har dezakete Caja Rural Vasca-Ipar Kutxan izena emanez.

Azokako zinegotzi Bittor Agirrek azaldu digunez, "epaimahaiak lehiaketako irabazleen izena ematean, saltoki hori normalean jendez betetzen da, eta baserritarrak orduan saltzen ditu produktu gehienak". Hala ere, hau gerta dadin, 13:30 arte itxaron beharko da, ordu horretan emango baitituzte sariak.

"Eguraldi ona eginez gero, 100.000 lagun etorri direla ere san izan da, baina normalean, 90.000 bat lagun etortzen dira"

Gainera, baserritarrek badute beren produktuak jartzeko tokia, 300 edo 305 saltoki baitaude guztira.

Baina, Gernikako Urriko Azken Astelehena azoka baino askoz gehiago da. Milaka jende etortzen da Gernikara egun honetan. Bittor Agirrek adierazi digunaren arabera, "eguraldi ona eginez gero, 100.000 pertsona etorri direla ere esan da noizbait, tren geltokietan-eta egiten diren kontaketen arabera; baina, normalean, 85.000 edo 90.000 pertsona etortzen dira".

Izan ere, saltokiez gain, txosnetako eta tabernetako giroa berezia da astelehen honetan Gernikan. Sagardoa, txakolina eta taloa txorizoarekin nonahi ikus daitezke.

Koadrilek txakolin edo sagardo botila erosi ohi dute, plastikozko edalontziak eskatu eta kalean ekiten diote, trikitixa doinu alaiak entzunez, inguruko edari preziatuak edateari.

Trikitixa nagusi

Izan ere, egun horretako soinua trikitixa izaten da, eta taberna askok ere bestelako egunetako *txunda-txunda*, rocka eta gainerako musika motak alde atera utzi, eta Alaitz eta Maider edo Tapia eta Leturia taldeen trikitixa soinua jartzen dute.

Hala ere, badaude eguneroko estiloa mantentzen dutenak, eta baita uda aldeko abestiak aprobetxatzen dituztenak ere; Bilboko jaietako Marijaiaren abestiaren doinuek bat baino gehiago bultzatzen dituzte besoak gora begira ipini eta dantzatzera.

Baina, egun honetan, eguraldiak lagunduz gero, tabernak txiki gelditzen dira. Hori dela eta, kaleek inurri piloa baten gisa pilatzen den jende andanaz gainezka egiten dute; beraz, jendeak tragoa tabernan erosi eta kanpoa edaten du, barruko musikarekin dantza eginez.

Jende asko eta asko etortzen da egun honetan, eta, askotan, zaila gertatzen da azoka bere osotasunean ikusi ahal izatea. Baina, beste asko, azoka ikusteko aukera izan arren, paso egin eta zuzenean taberna eta txosna inguruetarantz abiatu ohi dira.

Eskoletako galdeketak

Hala ere, badira azoka derrigorrez ikusi behar dutenak ere; eskoletako umeak eta gazteak, hain zuzen ere. Azoka ikusteaz gain, baserritarrei prezioen inguruko inkesta edo galdeketa egin behar izaten diote, eta hantxe ibiltzen dira, nagusien artean ezin sartu, ukondoarekin sakatu eta postu aurrera iristen diren arte, prezioak ikusi edo baserritarrei galdetzeko.

Aurten Gernikako indaba eta piper sikuaren prezioaren gainean, behintzat, ez dute galdetu beharik izango, EUSKALDUNON EGUNKARIA erosi eta bertan izango baitute informazio hori; horrela, parrandarako unetxoren bat ere geratuko zaie, behintzat nagusitxoagoak direnei. Eta umetxoagoak direnek animaliak ikusteko aukera eta denbora izan dezakete horrela.

Tabernetan estu sentitzen direnentzako txosnen aukera ere hor dago. Txosnetan, txosnen inguruan, toki gehiago izan ohi baita. Guztira, zazpi txosna izango dira aurten, guztiak kultur taldeek jarriak. Txosna bakoitzak 35.000 pezeta jarri behar izan ditu egingo diren kontzertuen zati bat ordaindu ahal izateko.

Gaueko 22:00ak bitartean badago tarte handia txosnei bisitatxoa egin eta sagardoa, txakolina eta, nola ez! Taloa txorizo edo solomoarekin jateko. Jaiegunek beren berezitasuna izaten dute, eta Urriko Azken Astelehenaren berezitasun nabarmenatarikoak horiexek izaten dira. Beraz, ohiturari jarraitu beharko zaionez, jan eta edan egin beharko dugu; baina, kontu handiarekin, hori bai.

Euskal Herriko Gidaren sarrera

"**EUSKAL HERRIKO** Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Azokak" izeneko zabalkunde-katalogoaren 2001eko edizioa aurkezten du Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, azoka horiek sustatzeko konpromisoari eutsiz, funtsezko bide baitira -zuzenena izateaz gain- gure herriko nekazaritza eta arrantza produktu nagusiak merkaturatzeko.

AURTEN ERE - eta urte askotxo dira- nabarmendu beharra dago Euskadiko azoka eta merkatuek arrakasta handia lortu dutela, aurreikuspen guztiak gainditzeko modukoa (liburuxka berri honen 30.000 ale banatuko dira). Izan ere, marka guztiak hausteari eutsi zaio azoka gehienetan, bai ikusleen kopuruaren aldetik, bai erakusleenetik: egin-eginean ere, eguraldi txarra ere ez da oztopo izaten gure herrietako edozein azoka arrakastatsu izan dadin.

EGIA ESATEKO, gizarte hiritartuak ezarri dituen erosteko ohiturak zirela-eta, orain urte batzuk gure betiko "perixek" eta barazki edo ortuari salmentek galtzerainoko gainbehera izango zutela iragarri zuten haiek zeharo tronpatu dira: 1980 ondoko hamarraldiaren hasieran udalak ia-ia erreguka ari baziren ere, erakusleei azokan postu bat jar zezaten eskaka, iaz, aldiz, ia-ia azoka guztietan eman behar izan diete ezezkoa erakusle batzuen eskariei. Euskal Herriko hiri-herrietako azoka-guneak etengabe handitu badira ere, eta hiri-herriok antolakuntzan gehiago inplikatu.

INPLIKAZIO HORREKIN, gainera, urtea joan eta urtea etorri, "bakoitzaren azokaren" izen ona eta distira areagotu egin nahi dira, beste herrietako azokenaren gainetik, eta, horretarako, aldaketa txikiak egiten dira, edo, bestela -azkenaldian batez ere- funtsean produktu bakarrari (patata, eztia, zaldia, berdela...) lotutako feria monografikoen bidea jorratzen, espezializazioaren bila.

AZKEN BATEAN, azoka hauen gorakada etengabe eta arrakastatsuen funtsezko eragilea, euskal kontsumitzailea, protagonista bihurtu baita; hain zuzen ere, kalitatezko produktuetatik (hala nola, gure nekazaritzak ematen dituenak edo gure arrantzaleek artisau-metodoekin harrapatzen dituztenak) urruti samar dagoen jateko modura lerratu ez delako, elikadura horren ondorioak ageri-agerian geratu dira eta (Belgikako oilaskoak, behi eroak...). Zeregin horietan, jakina, gure laguntza osoa izaten jarraituko dute.

Karlos Argiñano

ARGIA (2001-03-11koa)

A.- Zer da Euskal Sukaldaritzaren Berria?

K.- Duela 20-25 urte, gazte koadrila bat elkartu ginen. 25 urte inguru genituen denok, eta dozena bat urteko esperientzia. Konturatzen ginen nazioarteko sukaldaritzarekin gurea eta beste herri batzuetako sukaldaritzen nortasuna galtzen ari zela. "Entrecot a la pimienta", "Filet de soul al champagne". Eta postretan beti "flandul" prestatzeko moda jartzen ari zen. Ez gure plater, ez gure tradizio, ez gure postrerik. Talde hori mugitzen hasi zen eta izen bat jarri behar zitzaionez. Euskal Sukaldaritzaren Berria jarri genion. Gorabehera asko ekarri zituen izen horrek. Denek uste zuten Sukaldaritzaren Berria izenak dena ezberdina izango zela esan nahi zuela. Eta kontua ez zen txipiroiak, baratxuri zopa eta aba baztertzea, alderantziz, azalera zeta baizik. Orain 50 urte gure sukaldaritzaren astuna baitzen, eta errezeta kopuru murriztekoa. Denok entzun dugun "sota-caballo-rey" horrek osatzen zuen menua, eta hortik irten beharra zegoen. Nola? Esperimentatuz. Betiko osagaiak hartu eta nahastu, ukitu ezberdinak eman, modernizatu, saltsak arindu.

A.- Nolakoak ziren sukaldarien arteko bilera "langostinoak" (klandestinoak)?

K.- Hilero elkartzen ginen gutako baten etxean, afari bat egin eta eztabaidatzeko. Sukaldari bakoitzak bere bezeroetan moko finenak gonbidatzen genituen, gourmet gisa. Bost edo sei plater ezberdin prestatu eta afalostean platerak aztertu eta eztabaidatu egiten genuen, saltsa sendoegia zela, edo argiegia, edo osagai honek zaporea kendu ziola.

A.- Gaur egungo sukaldaritzaren nondik doa abangoardia?

K.- Une honetan denon erreferentzia nagusia Ferr-n Adri- sukaldari kataluniarra da. Gazte honek ez du labana eta sardexkarekin jateko ezer prestatzen. Dena aparrak eta horrelakoak egiten ditu "txanpinoi aparra", "jabugo aparra", "legatz aparra". Koilara txiki batekin datatzen dira, eta agian 20 apar ezberdin ateratzen dizkiete jatunei. Oso abangoardista da eta espainiar, japoniar, txinatar, frantziar, eta denak daude berari begira. Bere ukituak badaude Arzak Subijana eta nire sukaldean ere.

A.- Ona eta garestia sinonimo dira?

K.- Ongi jatea ez da ez asko eta ez garesti jatea. Ongi jatea orekatuta jatea da. Denetik janda elikatzen da ondoen. Orain haragiarekin arazoak daudenez arrainak eta beste haragiek gantxo gehiago dute. Jendeak behi eta idi haragia jateari utzi dio, agian Euskal Herrian ez hainbeste. Oilaskoa orain arte oso merke saltzen ari zen. "Hauek zer jaten ote dute?" pentsatzen nuen, eta azkenean jakiten duzu aurreko oilaskoen lumak ere jaten dituztela. Egunen batean lumak aterako zaizkigu guri eta orduan larrituko gara. Bestalde, haragia merke egoteak mesede egiten dio makina bat jenderi, bestela ez luke sekula haragirik jango. Orain 40 urte oilaskoa azpizuna bezala zen, jaunartze eta ezkontzetako jakia.

Jose Castillo zenak beti esaten zuen arrainik onena uretatik kanpo denbora gutxien daramana dela. Gaurko berdela edo orain 15 eguneko legatza edukita, niri emadazu gaurko berdela.

A.- Moko fina nola lantzen da?

K.- Ez da hain zaila. Larre motxeakoak asko gaude hemen. Baratxuri zopa, lekak, zerbak, azalorea, untxia saltsan, oilarra gisatua.... Horrelako platerekin lepo eginda nago. Baina denbora bera kostatzen da gauzak ongi edo gaizki egiten. Beraz, ongi egin ezak! Jendeari ez zaio janaria bota behar, jaten eman behar zaio. Janaria bota animaliei egiten zaie. Porrusaldarik sinpleena maitasunarekin eginda badago, nabaritu egiten da.

Etxean maitasun pixka batekin egiten bada sukaldean, seme-alabek segituan ikasten dute preziatzen. Ikasteko adinik onena 6 urtetik 12rakoa da. Garai horretan hasten dira mikatza, gazia, gozoa, eta mina bereizten. Adin horretan ez zaie nahi dutena bakarrik eman behar, garai horretan egin behar da ahalegina jaten erakusteko barazkiak, egoskariak, berdurak, zopak, arrainak, ehiza konbinatuz. Segituan ikasten dute- Haurrak hezteko bi gauza dira txarrak. Alde batetik presa. Gainerakoek postrea eta kafea ere hartu dugu, eta 3-4 urteko umeak ordu erdi edo hiru ordu laurden behar ditu bazkaltzeko. Hoztu egingo zaiola, eta jateko eta jateko presa sartuz errieta egitea ez da ona. Presa helduek dute, ile-apaindegira edo bingora joan behar dutelako, baina umea eskolatik etorri da eta hark ez du presarik. Laga sai jaten!

Bestetik oso txarra da arratsaldean bi "donuts" eta lau gailetarekin Cola-Caoa emanda afalduta bezala uztea. Horrekin gosea kentzen zaio, baina kontua ez da gosea kentzea, ongi elikatzea baizik, ahotik osasuna eta gaixotasuna sartzten dira. Biak.

A.- Gaur egungo bizitza estiloa

K.- Beti esan izan dut: mutilzahar, dibortziatu, eta jatun txarrak, altxa zaitezte sofatik! Berrogei urte eta kupel handiarekin, garagardoa edan eta afaltzeko hirugiharra, bi saltxitxa eta Starlux janez, ez duzu maitasunik ezta zure buruarentzat ere!

Oraingo bikote gazteetan sarri biek egiten dute lan etxetik kanpo. Sukaldaritza arazo bat bezala ikusten da. Baina badugu aukera ongi eta merke jateko. Egunero sukaldean aritu ezin dutenek ere asteburuan egin dezakete. Zenbat albondiga egingo ditugu? Hamar beharrean 40 eginda, lau edo bost otorduetarako nahiko albondiga baditugu. Ontzi egokietan jarrita izozkailuan sartu, eta bazkaldu baino pixka bat lehenago atera besterik ez da egin behar. Horrela janari naturala eta etxean egindakoa duzu. Kontua ez da denbora, gogoia behar dela baizik. Eta gogorik gabe ezin da egin ezta larrutan ere.

A.- Jatetxe txinatar, tailandiar, italiarrak ugaritu dira. Zer moduzkoak iruditzen zaizkizu?

K.- Jatetxe txinatarrak oso onak dira, baina onak direnak. Japoniarrak ere bai, onak direnak oso onak dira. Baina gure artean ez dut jatetxe onik ezagutzen. Azoketara azken unean joaten eta merkeena erosten ikusi ditut askotan. Gainerakoan, sukaldaritza txinatarra agin munduko onena izango da. Hemengo txuleta zaleak diren jatun onek ere, Txinako sukaldaritza izugarria dela esaten didate. Hainbeste direnez, eta sobera jenero ez dutenez, badakite dena bere puntuan prestatzen. Oso aberatsa da sukaldaritza txinatarra. Han denak du egosteko puntu bat. Azaren erdiko trontzoa ere prestatu egiten dute, bere puntuan egosiz eta aparte prestatuz.

IRUTXULO (313. zkia., 2000-05-25ekoa)

I.- Euskal Herriko goi mailako sukaldaritzaz eta herri gastronomiak hitz egin ohi da. Zer nabarmenduko zenuke horietako bakoitzean?

K.- Hemen Bruselan baino biztanle gutxiago ditugu, baina han bezainbeste goi mailako jatetxe. Herri sukaldaritza aberatsa dugu, goi mailako sukaldaritza eta herri sukaldaritza eskutik helduta joan baitira. Horrez gain, hemen oso produktu onak ditugu: haragia, barazki finak, arraina. Gainera, Ipar Euskal herriak bere ukitua eman dio hegoaldeko sukaldaritzari. Ez da harritzekoa, bera, hemengo sukaldaritza arrakastatsua izatea.

I.- Euskal Herriko Gastronomia Etxea beharrezkoa al da euskal sukaldaritza sustatzeko?

K.- Euskal Herriko Gastronomia Etxea ezinbestekoa da, euskal sukaldaritza babestu beharra dagoelako. Erakundeek egitasmoa lagundu beharko lukete. Tamalez askotan kosta egiten zaie dirua jartzea.

I.- Zeintzuk dira jorratu beharreko lehentasunak?

K.- Guk ere datuak jaso nahi ditugu zertan ari garen ikusteko. Sukaldariok bakarka lan egin ohi dugu, eta denok batera lan egiten hasteko garaia da.

I.- Intxaurrendoko Gastronomi Astea zer iruditzen zaizu?

K.- Mundu osoan ez da halako kalitatea eta ospea duen gastronomia jardunaldirik. Juan Mari Arzakek berak gauza bera dio, eta nire ustez, Juan Marik, "gerriko beltza" du sukalde kontutan.

I.- Behi eroak eta barazki transgenikoak direla eta, Garai batean baino okerrago elikatzen garela esan ohi da. Zer esango zenieke etxekoandreei?

K.- Betiko harakinarengana, betiko baserritarrarengana beldurrik gabe joateko, izan ere, sekula ez da egon orain baino kontrol gehiago. Onena produktuaren inguruan jakin nahi den guztia galdetzea da. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta hobeto jango dugu. Horrez gain, ahal den neurrian gertuko elikagaiak erosi behar dira. Merezi du gehiago ordaintzeak, izan ere, ondo jaten gastatzen duguna osasunean aurrezten dugu.

I.- "Jaun eta jabe" telesailean, "Arizkorreta" sukaldari arrakastatsua lehendakari izendatu zuten. Zuk ere Ajuria Enean jaun eta jabe izateko aukera izango zenuke.

K.- Sekula ez nintzateke politikoa izango. Hala ere, sukaldariok nahiko sentiberak gara, eta gauzak urratsez urrats egiten ohituta gaude. Beraz, ez dut uste sukaldari batek lehendakaritzan paper txarra egingo lukeenik. Telesail batean gogoz egingo nuke rol hori. Eskoletan sukaldaritza ikasgaia sartuko nuke eta sukaldaritza munduan euskararen erabilera bultzatuko nuke. Gainera, herria maitatuko nuke, herria maitatuz gero, egindako lana denontzat baita.

Denok sukaldari

(Administrazioa Euskaraz 11, 'Hizkuntzaren opil goxoa': 1. pasartea)

Orain dela gutxi arte sukaldeko lanaren altxorra horretan zihardutenen eskumenera zegoen bitxia genuen. Besteok, kristalezko erakustokiaren bestaldetik baino ezin goza genitzakeen sukaldaritzaren gazi-gozoek eta igarri ere ez genuen egiten zein litekeen gutizia horien sekretu ezkutua.

Misterioa komunikabideek argitu digute. horrela hara non ikusi dugun sukaldeko lana neurri handi batean ofizioa dela eta horretara jarriz gero, maitasun eta ausardia pitin batez lagundurik, denok izan gaitzkeela sukaldeko maisu, lagunartekoan behintzat.

Sukaldeari errespetua eta batzuetan beldurra ere bazitzaion, zer esanik ez idazketa-lanari. Idatzia dastatzean denok goratzen dugun hizkuntzaren opil goxoa dugu; gutxi dira, ordea, bere burua opil hori oratu eta besteei goza dezaten eskaintzera ausartzen direnak. Denok ez gara Atxaga, Orixe edo Mitxelena izango baina horrek ez diezagula pentsarazi idazle trebeak izan ez gaitzkeenik.

Testuaren sukaldean

(Administrazioa Euskaraz 11, 'Hizkuntzaren opil goxoa': 2. eta 3. pasarteak))

Sukaldean bezalaxe idazteko mahaian bi dira zaindu beharrekoak: lehengaien kalitatea eta horiek maneiatzeko prozedurak.

Testuaren lehengaia hizkuntza dugu eta hizkuntza horren oinarriko tresnak ezagutzea nahikoa da testuak egotzen diogun zeregina bete dezan. Baina ez ahaztu lehengaien hautaketa prestatu nahi den plateraren ezaugarrien arabera egiten dela: norentzat, zenbat lagunentzat, noizko... den kontutan izanda alegia; eta ez dugula sagar-mota bera erabiliko tarta edo konpota egitean. Hortaz, hizkuntza komunikaziozko helburuen menera egongo da eta ez alderantziz.

Hauxe duzue askok gainditu beharreko traba nagusia. Idaztean hizkuntza dotoreki erabiltzen dakigula erakutsi behar delako usteen edo, askok testuaren oinarriko arauak ahaztu eta esaldi "dotore" eta "ederrak" eginagatik gauza gutxi esaten dute: ez dute testua eraikitzen esaldi-andana besterik ez.

Osagai egokiez gain horiek maneiatzen ere jakin behar dugu. Ezagutu behar da esaldia eraikitzeko modua, paragrafoan esaldiak antolatzea eta azkenik, nola lotu paragrafo horiek denak testua osatzeko.

Opil goxoaren sekretuak...

Testu bakoitzak errezeta propioa badu ere, testugintzak baditu lege nagusi batzuk errezeta guztien jarraibide direnak. Jarraibide horiek testuak oro har duen zeregin komunikatiboari loturik daude eta testueltasun hitzaz bataiatu den ezaugarria mugatzen dute.

Hots, denok badakigu nolakoak diren sagar-tartak edo patata-tortillak. Testueltasun-baldintzek esango digute nolakoak diren gutunak, iritzi-artikuluak... Zertan da, bada, testueltasuna? Testuak bete behar diruen baldintza-multzoa, testua eta ez esaldi-kate lokabea, izango bada. Testueltasun-baldintzak hiru dira: koherentzia, kohesioa eta komunikagarritasuna.

Testuan biltzen diren ideiek elkarrekiko eta testuaren xede komunikatiboarekiko koherenteak izan behar dute. Ez da bidezko sagar-tarta egiteko madariak erabiltzea; madari-tarta litzateke eta.

Testuaren osagaien orobatasuna ere zaindu behar da. Horixe dugu kohesioa: ideiak egokiro hautatu eta formatzeaz gain elkarren artean modu nabarmenenean uztartu behar ditugu testu bakarra osatzeko.

Gainera, kontutan izan beharko dugu norentzat eta noizko ari garen sukaldatzen plater goxoa. Batzuek gustuko dute oinarri sendo eta mamitsuko tarta. Beste batzuek hojaldre-xafla arinekoa. Horixe da komunikagarritasun-baldintzak agintzen diguna: testua irakurri behar duenak erraztasunez irakurtzeko moduan idatz dezagula.

Eta errezeta txiki bat

(Administrazioa Euskaraz 11, 'Hizkuntzaren opil goxoa': 4. pasartea)

Osagaiak

Kontutan izan osagaiak egin nahi dugun plateraren araberakoak direla baina horien hautaketan besterik ere garrantzia izango duela. Hortaz, errepara iezaiezu honako alderdioi: nori idatzi nahi diozu? Zein da mezu nagusia? Ezagutzen al duzu horren eredurik?

Horren arabera, ideiak bildu: ideiak dira testuaren osagaiak, esaldi, paragrafo eta abarren azpian dagoen mamia. Oso gomendagarria da zerrenda txiki bat egitea horrek lagunduko baitigu testuari ekin baino lehen ezer falta dugun aurreikusten.

Prestakuntza

Ideiak antolatu: harreman zuzena dutenak elkarrekin jarri. Horrek ziur aski aipatzea merezi duten beste zenbait ideia biltzen lagunduko dizu.

Ideiak egitaratu: egitura da testualtasun-baldintzak gehienik mugatuko duen testuaren ezaugarria. Egitaratze-lana eskemaren bidez egin ahal izango duzu hobekien.

Garapena

Paragrafoak egitaratu: ideiak paragrafoetan garatuko ditugu ideia nagusia besteetatik argi bereiztuz. Gainera ez ahaztu ideia hori behar bezainbeste hornitzen adibide, azalpen, datu zehatz eta abarren bidez.

Paragraforak lotu. Testua ez da paragrafo-andana ordenatua soila. Kohesio-baldintzak hori baino areago eskatzen digu; alegia, lokailu, juntagailu eta abarrak erabil ditzagula testuan ideiak hari jarraiaz josteko.

Sarrera eta amaiera idatzi testuaren nondik norako nagusiak argi daudenean. Bertan testuaren asmoak eta elementu nagusiak bilduko ditugu eta halaber irakurlearen arreta gidatuko.

Zuzenketa

Behin dena idatzitakoan berrirakurri koherentzia, kohesio eta komunikagarritasun irizpideen begietatik eta akats gramatikalak zuzendu bai, baina ez horri soilik eskaini zure ahalegina.